

uk

172. zenbakia / 2010eko martxoaren 22a



Erandio 2010eko Martxoaren 28an kanpomartxoa Lutxanan


Bertso-estropada txalupatik txalupara



13:30ean



S
U
S
T
R
A
I



A
M
E
T
S

Antolatzaileak:



Lutxana Arraun Taldea

Babesleak:



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
 HELBIDEA: Armetzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
 ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
 AHOLKULARIA: Jokin Aspuru
 ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberoa Iturburu, Maitane Nerekan
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILEAK: Jorje Peraz, Bittor Eguroola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskaraz Elkartea
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
 KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
 FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskarazko elkarteetako Topaguneko partaidetza da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRIEN BIKTIMAK ARTATZEKO EUZKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Emakumeen Mundu Marxa.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Aixerrata, Getxo.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Marian de la Fuente.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Kioskoak Uribe Kostan.
- 28. ARGAZKIA. Aste Santua Gorlizen.
- 30. BERBETAN. J+G.
- 34. FOTOGRAFIA. Carlos Terreros.

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. *Iparraldea XXI* dokumentala.
- 43. MUSIKA. *Poetic Babies*. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. *Negua ospatuz* liburu-dokumentala. Erreseinak.
- 45. KIROLAK. Emakumezkoen IV. Futbol Txapelketa.
- 46. ELKARRIZKETA. Ekaitz Herrero eta Fabio Gonzalez, Gaztehgam.

AMAITZEKO

- 49. NORA JOAN. *Katea IV*, Erandio.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Getxoztar baten meza barria, 1954.
- 54. AITORMENAK. Kristina Aranzabe.


Azala: Carlos Terreros



30 Jota+Ge

Berbetan

Juana Ruiz eta Garbiñe Urdampilleta dira zilarrezko ezteiak betetzen dituen Jota+Ge modaren hari-artaziak



11 Marian de la Fuente



54 Kristina Aranzabe

www.renaultleioa.com

Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

Bisita egizu gure web berria eta hartu txanda on-line

www.renaultleioa.com

Leihatila

> Aiala Elorrieta

Herriko plaza

Herriko plaza, orain laberinto bilakatuta. Metamorfosian ikusten dudanean oroitzapenen makina martxan jartzen zait. Txikitako irudi bat: ikastolagaz inauterietan. Argazki barriagoa: bertso-photo saioa frontoian. Ez da hau plaza barritzen duten lehen aldia, baina antza, oraingoan aldaketa handia izango da, ebakuntza estetiko galanta. Ez da plazaren espazio fisikoa jokoan dagoen bakarra. Plazak, oraindino ere, eguneroko bizitzan topaketa puntu garrantzitsua dira, sozializazio guneak, eta beste espazio batzuek batera, bizitasuna ematen diote herriari. Ohiko plaza hauetaz gain, azken urteotan bestelako batzuk ari dira ernatzen merkatal zentroetan. Erosoak zer dira bada! Berdin da kalean zer aro dagoen, barruan beti gozoago egongo gara, burbuila batean bezala! Kale bihurtutako pasabideen artean, eszenatokian, funtzioa hasiera doa: bat, bi, eta (hiru esan orduko) kontsumitu! Fast-food eta fast consumption. Ez naiz fundamentalista: herriguneetan ere badaude dendak, eta merkatal zentroetara joatea ez da bekatu! Gune hauek nola erabiltzen ditugun, hori da arriskuetsua. Belaunaldi barrien artean, ume batzuk, bertan ari dira hazten eta horixe dute "herriko plaza". Bitartean, hor dugu gurea, trantsizioan, itxuraldatzen. Ez dezala behintzat bidean gal espazio publiko gisa duen funtzioa.

Iritzia

Martxoaren 8an, Getxo Antzoki barrirako egitasmoaren inguruan berba batzuk bidali zizkiguten San Nikolas Antzokia Auzoa Elkarteko lagunek; hona hemen!

San Nikolas Antzokia Auzo elkartetik

San Nikolas Antzokia Auzo Elkarteko zenbait kidek, Getxoko Udaletik hurbildu gura izan duten

«Antzoki barriaren proiektua berregin eta Algortako Erdigune Historikoaren errealitatera egokitu behar da»

Bilboko Egoitza Nagusian izanda-ko bileran adostu zen.

Bai auzokideek baita zinegotziek ere, gaur egun ia hutsik dagoen eraikinaren solairu guztiak bisitatu dituzte. Bertaratutakoek gura beste galdera egin ahal izan dituzte

zinegotziakaz batera, Telefonica konpainiak Algortako San Nikolas enparantzan duen eraikina bisitatu dute gaur. Bisita, joan den otsailaren 19an Telefonicako

eta eraikinaren erabilgarritasunari buruz eta Getxoko Udaleko Hirigintza zinegotziak aipatutako eraikinaren segurtasunaren inguruan esandakoari buruz gehiago jakin ahal izan dute. Telefonica konpainiako teknikariek galdera guztiak erantzun dituzte eta ez dute eragozpenik jarri eraikinari argazkiak ateratzerako orduan.

Telefonicako teknikarien ahotik entzundakoa eta euren begiak ikusitakoa eta gero, auzokideek ondoko ondorioak atera dituzte: Getxoko alkateak aurkeztutako argumentuak Algortako Kultur Gunean eraikina sartuko ez dutela arrazoitzeke (zehatz-mehatz Musika Eskola hartzeko) agerian uzten du, Udaleko hirigintza zinegotziaren ezjakintasuna, eraikina bereganatu eta proiektuan sartzeko Udalaren interes falta edota, txarrago izan daitekeena, Udalak ahaztu egin duela industria eraikinari erabilpen barria eman diezaioketela.

Arrazoiak arrazoi, Telefonicako eraikinera bisitan joan ostean, San Nikolas Antzokia Auzo Elkartek are argiago ikusten du guztiz beharrezkoa dela Getxoko Udal, Telefonica eta auzokideen arteko akordioa lortzea. Getxo Antzoki barriaren proiektua berregin eta antzokia Algortako Erdigune Historikoaren errealitatera egokitu behar da, horrela guztion eta guztiontzat izango den udalerritsetseginera eraiki ahal izateko.

San Nikolas Antzokia Auzo Elkartea
(antzokisiperoasino.blogspot.com)

gu geu

Ez dugu penitentziarik egingo

Bekatuak garbitzen harrapatu zuen Carlos Terreros argazkilariak zenbaki honetako azaleko argazkiko protagonista. Garaia bat datorren argazkia; izan ere, aldizkaria esku artean duzunerako Aste Santuan murgilduta edo atarian egongo gara.

UK-kook ez dugu gure burua bekatartzat eta ez dugu kaleetan ortozik ibiltzeko ohiturarik, baina hala ere "Santutzat" daukagu aurten apirilaren lehenengo egunagaz batera hasiko den oporraldia; zerutik eroriak bezala heltzen baitira apirileko jai egunak. Batzuk etxeko sofán, besteak Karibeko uretan, badaude mendian gora eta behera ibiliko direnak, bat edo bat desertuan galduta... etxean zein kanpoan, baina planak ez dira faltako.

Deskantsua merezitakoa dela esan ahal izateko, gogor egin behar dugu behar. 172. zenbakia kaleratzea, ohi baino neketsuago izan da. Orri kopurua betikoa dela ikustekoa da, baita egindako elkarrizketen luzera ere. Baina, aldizkaria egiteagaz batera, ziber-munduan bueltaka ibili behar izan gara azken asteotan. Zergatik? Bai, asmatu duzu. UK mundu mailako sare erraldoi horretan sartu delako, ziber-UK abian da. 12 urteko ibilbidea eta gero, bazen garaia web orria martxan jartzeko. Gurean ez dituzu azken orduko albisteak aurkituko; baina www.ukaldizkaria.biz gunean sartuz gero, Uribe Kostako memoria kolektiboaren parte garrantzitsuagaz egingo duzu topo. Beste sorpresak ere zain dituzu! Egin klik!

UK-ko lantaldea



ERANDIO, MARTXOAK 10

2011 arrazoi martxan jarraitzeko...! Emakumeen Mundu Martxaren hirugarren ekimenak ere egin zuen bidea Uribe Kostan. Martxoaren 10ean igaro zen. Bizkaiko zubitik iristekoa zen, baina ezin: zubiak matxura zuelakoan, garratiko arduradunek emakumeak urtenarazi zituzten; Ertzaintzaren erantzuna ikusita, ordea, bestelako iritzia daukate parte-hartzaileek. Oztopoak oztopo, marxa Erandiora heldu zen Rontegiko zubitik. Ekitaldia bukatu, gauzak bildu eta aurrera! Bilborako bidea hartu zuen. Izan ere, orain 2010 arrazoi eta beste bat dago martxan jarraitzeko. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

17. SOPELAN, 2010eko apirilaren 17an ESAERA ZAHARREN TXAPELKETA

aek



*diru asko mingainez,
poltsan bat ez*

Izena emateko epea: apirilaren 12ra arte • Inskripzioa 10€ taldeko • Bazkaria 18€ pertsonako • Partalde guztientzako oroigarriak • goizeko 11etatik lehen fasea, herrian zehar; finalerdia eta finala ANDER DEUNA IKASTOLAN • ANTOLATZAILEA ETA INFORMAZIOA Nikola AEK euskaltegia 618574445/695774015 jose-p@aek.org - aitor-f@aek.org www.aek.org SARIAK: 1. Asteburua landetxe batean (4 pertsona) 2. Afaria (4 pertsona) 3. Afaria (4 pertsona) 4. Afaria (4 pertsona) Bertsolariak: MIREN AMURIZA eta ANJEL MARI PEÑAGARIKANO

ARTADI garagardotegia	ARTOLOZAGA ANAIAK	Algorikako Bertolari Eskola	Carpe Diem Denver Erroia Ertza Etxebarri Frontoia Gaztedi Gerizpe	MESON JAUREGUI JAZETXEA URBASO Cherokee IPAR KUTXA
			Gure Atea Gurea Lalok Mikelats Munarri Sertutxa Txindor Volker Paulaner Biergarten	



Iraganez doa denbora* beti / AIXERROTA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > hegazkina egunsentian



2010eko otsaila, Erandio

Testua: **Unai Angulo**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Lehen eztanda izan genuen sorkuntzaren testigua, horren ondoren heldu omen zan gizakiaren ordua; beti amestu egin duela aireratzeko modua, (e)ta burdinazko txoria sortuz konkista zuen zerua.

2

Burrumba itzela entzundakoan gora doa begirada marra zuri bat irudikatzen duela lorratzak hara bidai(a) laguntzat eguzkiaren izpi goxoen islada eta lainoek zuzentzen dute bidea (e)ta abiada.

3

Azken mendeko asmakizunik akaso potoloena, urrun dagoen helmuga hori aise hurbiltzen duena. Loian gosalduta (e)ta afaltzeko bisita leike Viena; hegazkina da garraio bide seguru (e)ta azkarrena.

* Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai
iezaguzu atal honetan agertzea gura
zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu,
bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

www.ukaldizkaria.biz > UK aldizkaria ere sarean



UK aldizkariaren artxiboa eta argazki artxibo digitala eskuragarri egongo dira

la hamabost urte dira Bizarra Lepoan aldizkaria sortu zela, eta bazen garaia UK sareratzeko: www.ukaldizkaria.biz duzu gure helbidea. UK da paperean argitaratzen den Uribe Kostako euskara hutsezko hedabide bakarra. Baina komunikazio sistema barriak sortu beharrei erantzun ahal izateko, ezinbestekoa genuen teknologia barrietara egokitzea, eta horiek baliatzea euskaldunei zerbitzu hobea eta aberatsagoa eskaintzeko. Bizarra Lepoan sortu zenetik 170 zenbakitik gora kaleratu dugu, milaka barri, elkarrizketa eta argazki. Horiek guztiak, eskualdeko memoria kolektibo bihurtu dira, eta webgunean eskuragarri izango dituzu. Bestalde, lagun asko hurbildu da argitaratutako argazki zaharren bila. Horregatik, guztion eskura ere egongo da argazkien artxibo digitala. Gainera, ukagenda ere topatuko duzu bertan. Hori dena apurka burutuko dugu, baina dagoeneko badaukazu UK-ren saltsan ibiltzea. o

getxo > herriko toponimia ezagutzeko ibilbideak abian



Boluetik ere igaroko dira hainbat ibilbide

Martxoaren 17tik martxan dira Bizarra Lepoan elkartearen eta udaleko Euskara Zerbitzuaren ibilbide toponimikoak; lau hilabetez egingo dituzte. Herriko toponimia ezagutzera emateko asmoa daukate, euskaraz eta doan. *Getxoko leku izenak* toponimia liburuan oinarritutako hamar ibilbide egitera doaz ekimenaren hirugarren edizio honetan. Getxoko auzo guztiak bisitatuko dituzte ibilbidearen arabera, 1.000 eta 5.900 metro arteko luzera izango dute eta 19:00etan hasiko dira. Betiko legez, ikastetxe, kultur elkarte, euskaltegi eta herritarrek parte har dezakete. Ibilbidea alde aurretik lan dezaten, eskola materiala banatuko dute ikastetxeetan. Getxoko Turismo bulegora jo edo 688 635 350 telefono zenbakira dei dezakete ibilbideren bat egin gura dutenek. o

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

getxo > sarea josten ekimenaren ekintzak hasiko dira apirilaren 7an



Koska irratian entzun ahalko dituzu irratsaio berezi batzuk apirilean. Sarea Josten ekimenean parte hartzen duten elkarteek, ikastetxeek, taldeen edota hedabideen barri ematera datoz. Euskararen inguruan behar egiten duten taldeek elkar ezagut dezaten eta euskara bultzatzeko asmoz sortu da Sarea Josten, Bizarra Lepoan elkartearen ekimenez. Talde horren 15. urteurrena, Egizuren bosgarrena eta Algortako Bertsolari Eskolaren 30. a aitzakiatzat hartuta hainbat ekimen burutuko dute apirilaren 7tik 24ra. Irratsaioetan legez, parte-hartzaileei buruzko erakusketa ibiltaria jarriko dute herriko auzo guztietan, apirilaren 7tik aurrera. Getxoko Txorimalo gaztetxean egongo da egun horretatik eta 11 arte, kirol portura eroan arte. Hilaren 12tik Aldai Patronatura aldatuko dute. Bestelako ekimenak 9an abiatuko dituzte Txorimalo gaztetxean, antzerkiagaz eta folk jaialdiagaz. Eta presta zaitetz, egutegia leporaino beteta dator eta! ○

www.sareajosten.net gunean topatuko duzu egitasmoari buruzko informazio guztia

aro digitala > itzalaldi analogikoa martxoaren 10etik aurrera



Akabo! Iritsi da azkenean itzalaldi analogiko ospetsua. Teknologia digitalizatuz doa, eta apirilaren 3a eta gero, ezin izango da telebista modu analogikoan ikusi, ezta Uribe Kostan ere. Martxoaren 10ean ekin zioten itzalaldiaren azken faseari Bizkaian, gure eskualdea tarteko. Beraz, aurrerantzean, LTD seinaleen bidez baino ez da ikusiko telebista. Apiriletik aurrera LTD seinaleak baino ez dira helduko etxeetara, eta hortaz, telebista aparatua moldatu ez eta ikusten jarraitu gura duenak, lehenbailehen harremanetan jarri beharko dute beren telekomunikazio instalatzaileagaz, antenetan behar diren egokitzapenak egin ditzaten. Barrikan, esaterako, martxoaren 10ean itzali zituzten emisio zentroko telebista analogikoko ekipoak, udalerrri honi zerbitzua ematen diotenak. ○

Apirilaren 4tik aurrera modu digitalean bakarrik ikusi ahalko da TB



[erretratua]

“Erandioztarrok asko maite dugu gure herria!”

Marian de la Fuente > Berbots euskara elkarteko kidea

Martxan dagoenean lasaiago sentitzen da Marian de la Fuente erandioztarra. Ingurukoek “torretxorie” dela diote; zerbait mugitzen denean, dorrera igo eta zer gertatzen den ikusi behar duelako. Interesa badauka gainera, laguntzera animatzen da; are gehiago, herria laguntzeko bada: “Erandioztarrok asko maite dugu gure herria!”. Horrela hasi zen orain 16 urte Berbots Erandion Euskaraz elkarteak: “Euskararen inguruko jardunaldi batzuk egin ziren herrian. Mahai inguru baten ostean lagun batzuk lotu ginen berbetan; elkarte sortzeko beharra ikusi genuen eta horrela hasi ginen”. Eta hemen zein Finlandian gertatzen den bezala, martxan jartzeko dirua lortzea izan zuten lehenengo buruhaustea: “Garai hartan ‘Gezurra Nagusi’ saioa zegoen ETB 1en; taldeki-de bat saiora bidali genuen, dirua irabazi zuen eta horregaz hasi ginen”. Elkarteagaz batera herria aldatzen ikusi du de la Fuentek: “Jendearengana heltzeko moduak oso ezberdinak dira gaur egun. Elkarteak jende berri gutxi sartu da; gehienak dinosauroak gara”. Azken asteotan jo eta su ibili dira beharrez, martxoaren 28an Kanpomartxo ospatuko baitute: “Kanpomartxo egunean sortzen den giroak eta ilusioak aurrera egiteko indarrak ematen dizkigu”. Ikaragarri hazi den ospakizuna da: “Hasieran Fanon egiten genuen, inork ez zekien non geunden; gaur egun autobusa ere jarri behar dugu!”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan
Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Krisiak hondakinak eroan ditu

2008an baino 3.000 tona hondakin gutxiago sortu zituzten getxoztarrek 2009an. Horietatik **%23 birziklatu** zen; zatirik handiena **paper kartoia**rena da, beiraren aurretik

Nabarmen egin zuen behera Getxoko herritarrek sortu zuten hondakin kopuruak 2009an. 32.600 tona izan ziren guztira, 2008an baino 3.000 gutxiago. Sortutakoaren %23 birziklatu zen; paper-kartoia izan da gehien birziklatu dena, 3.100 tona guztira. Hala ere, Udalak etxe, ikastetxe eta udal bulegoetara bidalitako diptikoan hobetzeko faktoreak daudela gogorarazi gura izan du.



Papera eta kartoia izan zen 2009an gehien birziklatu zena

Hondakin eta birziklapenerako gaikako material-bilketaren 2009ko balantzea aurkeztu zuen Udalak martxoaren 10ean. Ondorio nagusi bezala, sortutako hondakin kopuruan emandako beherapena da azpimarragarriena; 2008an baino 3.000 tona gutxiago produzitu zituzten getxoztarrek joan den urtean. Horretan krisi ekonomikoak izan du eragina Udal iturrien arabera. Guztira 32.674.160 tona hondakin sortu ziren, eta horietatik, 28.493.960 ez ziren birziklatuak izan.

Papera, beira, ontziak, pilak, aparailu elektrikoak, fluoreszenteak, arropa, obrahondakinak eta hondakin handiak birziklatu ziren; guztira, 7.000 tonatik gora.

Gaika begiratzuz gero, papera eta kartoia izan zen gehien birziklatu zena 2009an, hiru milioi tona. Horrek 44.465 zuhaitz, 794 tona petrolio, 317.600.000 litro ur eta 15.880.000 Kw/h energia aurrezte ahalbidetu zuen.

Hala ere, paperaren birziklapenari dago-kionez, akats bi nabarmendu ditu Udalak: edukiontzietatik kanpo uzten dela askotan eta horretarako ez diren edukiontzietan botatzen dela.

«Papera eta kartoia izan ziren 2009an gehien birziklatutako materialak; horrek, 44.465 zuhaitz eta 794 tona petrolio aurrezten lagundu zuen»

Gehien birziklatu den bigarren materiala beira izan da. Udalerrian dauden 187 edukiontzi berdeetan 1.600 tona beira jaso dira. Horri esker, 2.042 tona lehengai eta 6.176.250 botila aurreztu dira. Honetan, edukiontziak ezorduetan erabiltzeak sortzen duen

zarata aipatu dute Udal iturriek.

Ontziei dagokionez, 987 tona birziklatu ziren joan den urtean, 2008an baino %4 gehiago. Horrek petrolio aurrezten laguntzeaz gain, bizitza luzeko hondakinak saihesten lagundu zuen. Udaletik argi utzi gura izan dute, edukiontzi horietan ez dela plastikoa bota behar, soilik ontziak.

Arropatan 249 tona batu ziren eta pila eta fluoreszentetan 8 tonako kopurua gauditu zen. Pilak birziklatuz, metal oso kutsagarriak lortzen dira, hala nola merkurioa eta zinka.

Azpimarratzekoa da, krisi ekonomikoaren eragina dela eta, hondakin elektroniko eta elektriko handien birziklapena nabarmen egin zuela behera 2009an; 548 tona batu ziren guztira, 2008an baino %21 gutxiago.○

Merkatariak batuta

sektoreari bultzada emateko indarrak metatzeko



Areetako Xake Plazan egin zen 2010eko VII. Getxo Outlet-a

Asko dira azken urteotan ixten ikusi ditugun Getxoko denda eta tabernak. Krisiaren eraginak zein bestelako faktoreek (Merkatal Zentro erraldioen agerpena e.a.) eragina izan dute horretan.

Egoerari indarrez aurre egiteko eta merkataritzaren sektoreari bultzada emateko Merkataritzaren Mahaia aurkeztu zuten martxoaren 2an. Merkataritzagaz zerikusia duten udaleko ordezkariak, Getxo Enpresa eta Merkataritza-GEEM elkartearen ordezkariak eta elkartuta ez dauden saltzaileen ordezkariak osatzen dute mahaia. 2008an hasi zen prozesuaren emaitza da eta Getxoko Hirugarren Sektorea Dinamizatzeko Planaren barruan dago.

Herriko merkataritza jarduerari bultzatzeko ekimenak koordinatzea eta

partekatzea dute helburu nagusi; informazioarako eta kontsultarako topagunea izan gura du erakunde publiko-pribatu honek.

Inguruko udalerrietan ez da horrelako topagunerik, horregatik, "formatu barriko lanabesa" dela uste du Aitor Soloeta Sustapenerako arloaren zinegotziak. Hile biro batzartuko da Mahaia; horrez gain, hilero batzartuko diren hiru lantalde sortuko dituzte gaiak pentsatu eta Udalaren eta merkatarien artean adostutako proposamenak lortzeko. Bestalde, urtean bat edo bi asanblada ireki egingo dituzte; bertara, udalerriko merkataria eta ostalari guztiak egongo dira gonbidatuta eta Merkataritza Mahaia hartutako erabakien barri emango diete. ○

GETXOKO ETXE HANDIEN ERAKUSKETA MOILAN

Areetako Moilan zehar *Getxoko Etxe Handien pasealekua* izeneko ibilbidea erakusten duten 20 panel jarri ditu Udalak. Udalerria zeharkatuko dituzten zazpi ibilbide turistiko-kulturalen proiektuaren lehenengo ekimena da; gainontzekoak uda hasieran aurkeztuko dituzte. Seinaleztatutako ibilbide autogidatua da; panelek bi irudi eta hiru hizkuntzatan (euskaraz, gaztelera eta ingelesez) idatzitako testua dute. Ariatza Etxea, Itsas Begi, garaiko gizartearen testuingurua eta beste hainbat eraikin eta gertaera historikori buruz azalpenak ematen dituzte panelek. Ibilbideak Txurruka moilan eta Bola hondartzan du hasiera eta bukaera.

KIROL CAMPUSAK ASTE SANTUKO OPORRETAN

Aste Santuko ikastetxeetako oporrak aprobetxatuz, kirol campusak antolatuko dituzte herriko hainbat klubek Getxo Kirolak laguntzagaz. Getxo Saskibaloia Taldea, Gobelako kiroldegian egongo da apirilaren 6,7,8 eta 9an; 4 eta 11 urte bitarteko umeek parte hartu ahal izango dute eta izena emateko 662 940 474 telefonora deitu behar da. Egun beretan, baina Fudurako errugbi zelaian, Getxo Rugbyko lagunak izango dira; parte hartzeko, 94 491 39 65 telefonora deitu behar da. Bestalde, martxoaren azken hiru egunetan Gimnasia Erritmikoko taldea egongo da Faturan. Horiek harremanetan jartzeko 665 73 35 57 telefonora deitu besterik ez dago. Azkenik, eskubaloia tailerrean parte hartu gura duenak 94 608 18 88ra dei dezake.

GIZARTE LARRIALDIEN LAGUNTZAK ONARTUTA

Abenduaren 3a arte Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskatzeko aukera egongo da. Aurten 570.000 euro eman ditu Jaurialdiz, Getxoko Gizarte Zerbitzuek kudeatuko dituztenak. Alokairurako, kredituak amortizatzeko, etxetresna elektrikoak erosteko eta beste zenbait gastutarako emango dute dirua. Informazioa Gizarte Zerbitzuen bulegoetan eskuragai.

Etxeart
Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Mikel Gorrotxategi > *Getxoko izenak* liburuaren egilea

“Detektibe lana egin behar izan dut; Algortan zaila izan da informazioa lortzea”



Mikel Gorrotxategi, *Getxoko izenak* liburuaren egilea

Asko dira *Getxoko* kale eta izenek gordetzen dituzten istorioak; horiek guztiak, herriko historiaren parte garrantzitsua dira. Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko idazkariak urte eta erdi eman du informazioa batzen, eta horregaz *Getxoko izenak* liburua osatu du. Bost urte joan dira Sofia Susogaz batera toponimia liburua kaleratu zuenetik; toponimo horien jatorria, esanahia eta historia bildu ditu Gorrotxategik oraingoan, euskaraz eta gaztelerez.

—Zer aurkituko dugu *Getxoko izenak* liburuan?

—Getxoko izenen historia biltzen duen liburua egiten saiatu gara. Aurrekoan dokumentazioa bildu genuen; oraingo honetan, etimologia, dakigun kasuetan eta izenen historia. Irakurtzeko liburua da. Adibidez, batzuetan baserrien izenak aldatu dira eta zergatia topatzen saiatu gara; izenen bizitza kontatu dut.

—Bakarrik egin duzu behar?

—Iratxe Lasaren laguntza izan nuen, baina ezin izan zuen amaitu eta egile moduan ez agertzea eskatu zidan.

—Argazkiak ere aurkituko ditugu.

—Liburuak badauka muga bigun bat: XX. mendera arte heltzen da. Lehena-gotik zetozen etxeen historia kontatzen du, amaitu arte. Baina, salbuespenak salbuespen, ez ditu biltzen XX. mendean sortu ziren etxeak. Etxe guztien argazkiak lortzen saiatu gara. Zutik dauden etxeen kasuetan egin ditugu; besteetan, eskatu dugu bertan ea argazkirik duten. Hemen dei berezia egin nahi diogu jendeari, batetik etxean baldin badaukate argazki zaharrik guri helarazteko. Bestetik, ikusten baldin badute

guk liburuan gaizki kokatu dugun etxe bat dagoela, Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jar daitezela. Herritar bati esker jakin dut Txakurzoloren ordez Txakurzulo dela.

—Zelan lortu duzu informazioa?

—Alde batetik, orain urte batzuk argitaratu zuten toponimia ikerketa bat hartu dut; hor bildutako materiala aztertu, eta ondoren, ahal den neurrian, etxez etxe galdetuz joan naiz. Leku batzuetan erraza izan da, baserriak dauden lekuetan batez ere. Algortan oso gaitza izan da; etxeak bota dituzte aspaldian eta oso

«Jendearen harrera oso ona izan da; getxoztarrek herria maite dutela ikusi dut»

zaila izan da hor bizi izandako jendea topatzea. Horregatik, badakigu hutsune asko daudela. Kalbetena adibidez, badakigu Algortako Etorbidean zegoela, baina ez dakigu non.

—Zaila izan da informazioa lortzea?

—Aurrekoan baino askoz ere zailagoa izan da; detektibe moduan ibili naiz. Kasu batzuetan baserriak zutik daude edo jendea bizi izan da orain arte; horietan ez dago arazorik. Baina, bereziki Algortan, asko bota zituzten zoratze-koa izan da. Desagertutako etxeekin mapa eginda daukat. Aipatu behar dut, jendearen harrera oso ona izan dela. Getxoztarrek herria maite dutela ikusi dut; harrera beti izaten da ona, baina hemen bezain ona esango nuke ezetz.

—Zerbait gehiago egiteko asmorik?

—Interneterako tresna dinamikoa sortzea pentsatu dugu: mapa bat izenekin, baserrien argazkiak e.a. Horrez gain, baditugu beste asmo batzuk, baina horiek berdeago daude. ○

Txorimaloren urteurrena

Algortako Gaztetxeak lau urte bete ditu; apirilaren 6tik 10era ospatuko dute



Andra Mari inguruan dago Txorimalo Gaztetxea

Lau urte joan dira Algortako gazteek Andra Mari auzoan dagoen etxea okupatu eta bertan Txorimalo Gaztetxea sortu zutenetik. Aurten ere, orain arte egin bezala, egitarau oparoa osatu dute urtebetetzea ospatzeko. Ume, gazte zein hain gazteak ez direnak ekimenetan parte hartzera animatu gura dituzte Algortako Gazte Asanbladako kideek.

Apirilaren 6an txupinaren jaurtiketaz hasiko da ospakizuna. Egun berean, bertsolariek eta dantzariak prestatutako harrera ekitaldia eta film labur emanaldia izango da. Hurrengo egunean, Agro Olinpiadak eta antzerkia egin-

go dute Gaztetxean bertan. Apirilaren 8a, Herriaren Eguna izango da. Telletxe plazan umeentzako tailerrak eta jolasak, zirku ikuskizuna eta Koblakarien emanaldia egongo da. Barikuan, hilak 9, manifesta-jaia egingo dute herrian zehar arrastiko 18:00etatik aurrera. Iluntzerako, antzerkia eta folk jaialdia antolatu dute. Artzain-txakur erakusketa egingo dute 10ean, goizeko 11:00etan. Horren ostean, herri bazkaria eta Itziarren Semeak, Aske eta DJ Bull taldeen kontzertuak egingo dira. ○

Informazio gehiago: txorimalogaztetxea.blogspot.com

URPEKARITZA BATAIOAK FADURAN

Divertek eta Itsas Dive klub getxoztarrek, urpekaritza bataioak egiten ari dira Fadurako igerilekuetan. Otsailean, 16 eta 66 urte arteko herritarrei zabalik egon ziren bataio bi eskaini ostean, ikastetxeak beharrean hasi ziren martxoaren 14an. Lehenengoak San Nikolas Ikastolako gazteak izan ziren; horiek amaitutakoan, beste ikastetxe bigaz jarraituko dute.

LIBURUTEGIA ZABALDU DUTE GOBELAN

Romoko Santa Eugenia Kultur Etxe barria konpondu artean, Kiroldegiko etxabeetan jarri dute romotarrentzako liburutegia. 400 metro koadroko gune barria, espazio bitan banatuta dago. Nagusientzat 46 leku ditu eta umeentzat 28; horregaz batera, irakurtzeko txokoa jarri dute. Liburutegiko bildumak 25.000 ale ditu (mediatekaren materiala barne). Udalak lokalen barrizean 700.000 euro inbertitu ditu.

DOKUMENTAL BILDUMA SAN NIKOLASEN

San Nikolaseko liburutegian 500 DVDz osatutako bilduma dago herritarren eskura. Filmak maileguan eroan daitezke etxera zazpi egunez eta erabiltzaile-txartela aurkeztu behar da horiek eskuratzeko. Artea, historia, natura, politika, musika eta beste hainbat gairen ingurukoak dira dokumentalak; katalogoa liburutegian bertan eta www.euskadi.net/katalogo helbidean kontsulta daiteke.

MENDIZALETASUN TXOKOA EZTABAIDAN

Algortako Amezi kalean dagoen Eztabaida Gune Antiautoritarioan mendizaleatasunari buruzko txokoa sortu barri dute. Euskal Herrian, Pirinioetan eta Europako Mendietan zehar egiteko ibilbide proposamenak, zein eskaladari buruzko informazioa biltzen duten liburuak aurki daitezke. Horrez gain, orain arte eskainitako liburu, aldizkari, DVD eta musika eskaintzagaz jarraituko dute.

lagusana
libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Javi Arbaiza > Pentsioen murrizketaren eta langabeziaren aurkako plataforma

“Erretiratzeko adina izebergaren punta da, lan merkatu osoa erreformatzea da benetako asmoa”

Erretiratzeko adina igo gura dutela eta zalaparta handia sortu da, baina ekimen gehiago ere badakar auziak. Horregatik, pentsioen murrizketaren eta langabeziaren aurkako plataforma eratu barri dute Leioan, Langabetuen Asablandaren ekimenez.

—Nolatan sortu duzue plataforma?
—Langabezia gainera, pentsioen murrizketa eta erretiratzeko adina igo-tzea bezalako erasoak etorri dira eta erantzun beharra dagoela ikusi dugu. Protesta kaleratzea ere beharrezkoa dela konturatu ginen. Lehen bilera deitu genuen eta handik atera zen lehenengo deialdia: Bulevardean otsailan egin genuen elkarretaratzea, 60 lagun batu ginen. Gaur bigarren bilkura egingo dugu, irekia.

—Zeri buruz arituko zarete?

—Guztion artean erabaki gura dugu zer egitera goazen. Beharrezkoa da gobernuaren neurrien aurka daudenak batzea, esparru horietako guztietako jendea batzea, eta bilerakaz, plataforma zabaltzea.

—Zein helburugaz arituko zarete?

—Jendea sentsibilizatzea da helburua, eraso larri hauen aurrean kalera irtetea.



Herriko Langabetuen Asanbladaren ekimenez jaio da plataforma

Leioan ia 2.000 langabetu gara. Daukagunari eta gainera datorkigunari erantzun behar diogu. Jendea oraindino ez da egoeraz jabetu. Murriztuko dituzte pentsioak eta zerbitzu sozialak. Dagoeneko egiten dabilta Eusko Jaurlaritza, Aldundiak... Horri guztiari aurre egiteko modu bakarra kalera irtetea da. Beraz, mobilizazio plataforma izan dadin gura dugu.

—Orain arte erretiratzeko adinaren

auzian kokatu dira protestak.

—Baina hori baino askoz gehiago da, 67 urteena izebergaren punta da, eta eurek ere ez dute sinesten egingo dutenik. Lan merkatu osoa erreformatu gura dute, hori da benetako asmoa; beste murrizketak sartzen joatea, pentsioen sistemagaz zein gizarte-segurantzaz bukatzea eta hori dena pribatizatzea. Herritarrek erretiro-pensio pribatuak egin ditzaten gura dute, eta bankuak indartu. ○

Dantza airean udaberrian

Kultur Leioan abiatu dituzte **Abeceda erakusketa** eta aurtengo **Dantza Zirkuitua**



Apirilaren 30era arte ikus daiteke **Abeceda** Kultur Leioako erakusketa aretoan, doan

Udaberria dantzaz blai dator. Izan ere, gaiagaz erabat lotuta dauden ekimen bi abiatu ditu Kultur Leioak: **Abeceda** erakusketa eta **Dantza Zirkuitua**; erakusketa aurkezteaz bat abiatu zuten zirkuitua hilaren 17an, **Dantzaz konpainiagaz**.

Mabi Revueltak bildutako lana da erakusketa. Alfabetotik abiatu da, horra hor izenburua. Lengoaiaren miaketan eta ikasteko moduan oinarrituta daroa ikuslea XX. mende hasierara eta txekiar eszena barrizailera. Hainbat artistaren arteko erkarlanaren ondorio da: Vitezslav Nezval poeta, Karel Teige diseinatzailea eta Milca Mayerova dantzari eta koreografoa. Erakusketa apirilaren 30era bitartean bisita daiteke.

Bitartean, Auditoriumen eskainiko dituzte dantza ikuskizunak, **Dantza Zirkuituaren** baitan. **Vuelo 6408** ikuskizuna ikusi ahalko da martxoaren 26an. Lau talderen pieza laburrak dira: **Natxo Montero Danza**, **Janet Novas**, **Pisando Ovos** eta **Sharon Fredman**. Egun bi beranduago, barriz, **Da**. Te danza taldearen txanda izango da. Apirilaren 18an, **ordea**, **Nats Nus** konpainia arituko da, eta **Entremans 30ean**.

Baina apirilaren 29an izango da ekitaldi nagusia; taula kalera aterako dute, **Dantzaren Nazioarteko Eguna** dela eta. Hainbat talde arituko dira: **La Macana**, **Despertar los sentidos** eta **Andoni Arestiren** eskola, besteak beste. ○

ESKARIEN %92 ATENDITU ZUEN ETXEZ ETXEK IAZ

Iaz 105 lagun atenditu zituen **Etxez Etxeko** zerbitzuak, 96 etxetan; hau da, eskatzaileen %92rengana iritsi zen, **Udalak** jakinarazi duenez. Zerbitzu Sozialetatik eratorria da **Etxez Etxe**, udal aurrekontuagaz betetzen ei dute eta zuzeneko arreta eskaintzen die gaixoei. **Arduradunen** ustez, ongizatea mantentzea da helburu nagusia, bai fisikoa, gizartekoa edo mentala. Horrela “*gaixoa bere inguruan mantentzea lortzen da, bere bizi kalitatea handituz eta hobetuz*”. **Bestelako** zerbitzuak ere eskaintzen dizkiete nagusiei; besteak beste, **etxeko** zerbitzua jasotzen duten 96 etxeetatik 42k, **telelaguntza** ere badaukate. **Alarma** bitarteko zerbitzua da, eta **emergentzia** egoeratan, arreta zerbitzu guztiak martxan jartzen ditu.

BERBALAMIÑEREN KANTU AFARIA 26AN

Azkar ibili behar duzue **Berbalamiñe** euskara elkartearen kantu afarian parte hartu gura baduzue. **Barikuan** izango da, **martxoaren 26an**, **Betiko** ikastolan, **22:00etan**. **Taldea** osatu behar duzue ondoren abesteko. **Baina** ezarriak berotu beharko dituzue aurrea, horretarako prest dago poteoa, **taberna** ibiltariak girotuta; **19:00etatik** aurrera ibiliko da herriko tabernetan zehar.

Informazio gehiago:
<http://berbalamineuskeraz.blogspot.com>

DONIBANE JAIETARAKO KARTEL LEHIAKETA

Abian da **Donibane** jaiak iragartzeko kartela hautatzeko lehiaketa, beste behin ere. **Apirilaren 29ra** arte aurkez daitezke lanak **Kultur Leioan**. **Aurten** ekainaren 23a eta 27a bitartean ospatuko dira jaiok, **eguztenetik** domekara. **Lehiaketari** buruzko informazio gehiago edota oinarriak eskura ditzakezu **Kultur Leioaren** internet gunean: www.kulturleioa.com.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

BASTARTENA
URDULIZ
Teléfono: 946 761 128

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

OSABIDE HORTZ KLINIKAK
Arantza Etxebarria
• Odontologia orokor
• Onodontzia
• Periodontia
• PADE
Bakebarri 27, beheko erailea
ALGORTA
94 430 76 96

[erandio]

Jon Astui > Jaialdi Inertziako Kirolen Elkarte

“Lanean gabiltza mota honetako kirolak ofizial izenda ditzaten eta federazioa egon dadin”

Erakusketa bitxia ikus daiteke egunotan udalaren erakusketa gelan, inertziako kirolei buruz. Jaialdi elkarteak antolatuta du eta martxoaren 28 arte egongo da ikusgai. 80ko hamarkadatik dabilta kirol hauen ofizialtasunaren alde beharrea Erandion; Jon Astui da elkarteko kideetako bat.

—Lehenik eta behin, zer dira inertziako kirolak?

—Hasi ziren izaten goitibeherak eta antzekoak, baina gero harremana egin genuen Galizia eta Asturiaseko jendeagaz, eta errodamenduzko modalitateez gain, haiek neumatikoenak eta egurrezkoak ere jorratzen zituzten. Geroago beste kiroleratik eratorritako modalitateak ere sortu ziren, elurretako goitibehera modukoak, esaterako, edo patinak... hama-bi bat modalitate biltzen dira.

—Ez da oso ohikoa, antzeko elkarterik badago inguruan?

—Bizkaian lau elkarte gara, Nafarroan bi daude, Asturiasen bat eta Galizian beste lauzpabost. Elkarlanean gabiltza mota honetako kirolak ofizial izenda ditzaten, benetako kirola izatea lortzeko, eta ez izenez bakarrik, eta federazioa ere egon dadin; hirugarren saiakera izango



www.fedei.com gunean aukera dago kirol mota hauek hobeto ezagutzeko

da. Bestalde, dagoeneko lortu dugu pilotuentzako segurua, eta tasa bat ere ko-bratzen dugu zirkuituak muntatzen dituzten lagunak aseguratzeke. Kirolen arautegia ere badaukagu.

—Lehiaketak antolatzen dituzue?

—Elkarteok Open Fedei txapelketa antolatzen dugu, bost proba biltzen dituen, eta Espainiako txapelketa, elkarlanean. Horretaz gain, gure kabuz ere antolatzen ditugu Euskadiko txapelketa eta gisakoak. Nafarroan *bobsleigh* elkarte

sortu da eta hor ere sartuta gaude; udan goitibeherak egiteko, eta neguan, *bobsleigh*.

—Zer ikusiko dugu erakusketan?

—Modalitate bakoitzaren argazkiak, bideoak eta arauak erakutsiko ditugu. Lehenengoz dakargu erakusketa, jendek kirol hauek ezagut ditzan. Izan ere, beti esaten digute hori ez dela goitibehera, beste zerbaite dela. Baina dena garatuz doa, dena doa aurrera. Hori dena erakutsi gura diegu herritarrei. ○

Eman ziaboga Lutzanan! Kanpomartxo izango da martxoaren 28an, arraun taldearen 80. urteurrenaren omenez



Autoa etxean uzteko eta metroz joateko dei egin dute

Bertan dago, egun gutxi falta da aurtengo Kanpomartxo jaialdirako. Martxoaren 28an izango da, domekaz. Lutzana auzoa aukeratu du Berbots Erandion Euskaraz elkarteak, antolatzaileak, bertako arraun taldearen 80. urteurrena dela eta. Aurten itsasadarra baliatuko dute, gainera, ekimenak egiteko.

Goizean goiz hasiko dira ekintzak ibaian, 10:30ean. Ibilaldiak egingo dituzte piraguan, eta arraun ikastaroak.

Baina 12:00ak arte ez diote benetako hasiera emango jaialdiari, aurkezpenagaz batera. Euskal dantza alardea ikusi ahal-ko da jarraian, Uztargi, Trabudu eta Goialde dantza taldeen eskutik.

Halere, ondoren iritsiko da aurtengo nobedadea, bertso saioan. Izan ere, bertso-estropada izango da aurtengoa, 13:30ean; Sustrai Colina eta Amets Arzallus, nor baino nor, txalupatik txalupara. Saio berezia eta sabela bazkaritarako prestatzeko aproposa.

Eta ezin kale egin Kepak eta Robertok, betiko kantuakaz bazkalondoa alaitzeko. Umeez izango dute nola gozatu bitartean, antzerkiagaz; egunean zehar ere izango dute makina bat jolas. Eta jaia ondo amaitzeko, dantzaldia behar: Luhartz taldeak girotuko du aurtengo erromeria, 18:00etatik aurrera. On egin eta aupa Lutzana! ○

COCIDITO MADRILEÑO 2, MARTXOAREN 27AN

Altzaga auzoko azoka zaharrean eskainiko du Glu-glu antzerki taldeak *Cocidito madrileño 2* lana. Datorren martxoaren 27an izango, 19:30ean eta bost euroren truke. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean eta Kultura sailean eskura ditzakezu sarrerok. *Cocidito* kale baten izena da, txikia baina jendetsua, eta zeresan handia ematen du. *La radio* vedetteak gidatuko du ikuskizuna, bere garaian izar handia izan omen zen eta. Radio Euskadiko *Cocidito madrileño* saioan jasotako eta irratietako solaskideek benetan esandako gauzak kaleko pertsonaia horien ahoan jarriko dituzte. Finean, *Cocidito* kalea “gure herriaren isla izango da: Euskadiko egunerokotasunaren metafora”, diote antzerki taldekoek. Ramon Merlo, Loli Astoreka, Javier Anton, Eduardo Gaviña *Yogurinha Borova*, Mari Cruz Melgosa, Libe Aranburu eta Josean Bengoetxeak antzetzuko dute.

HATZAK MIAZKATZEKO MODUKO IKASTAROA!

Sukaldaritza ikastaroa abiatu barri du Berbots Erandion Euskaraz elkarteak: hasibarrientzako, lagunak liluratzeke sukaldaritza erraza. Eguazteneor jarri dute zita hemendik eta maiatzaren 5era, 19:30ean. Izena emateko modu bi dituzu, telefonoz bata, 630404171 zenbakira deituz, eta korreo elektronikoa bidaliz bestea, berbotserandio@telepolis.com helbidera.

BADUTE IRABAZLERIK IPUINEK ETA BERTSOEK

Jakitera eman dituzte aurtengo umeentzako ipuinen eta bertso-paper lehiaketen irabazleak. Naia Gambrak irabazi du txikien mailako ipuin lehiaketa, Alba Lopezek 12 urte bitarteko maila eta Uxue Azkaratek 15 urte artekoa. Bertsoei dagoekienez, Iker Torrescusak garaitu du, Alvaro Feijoo suertatu da bigarren eta Nuria Velasco hirugarren. Zorionak zuei!

LUBERRI
Basolanak SL
Lorezaitza

Luberrí Basolanak, SL
Axpe ibalartza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf.: 94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrí@euskalnet.net
www.luberrí.biz

- Soropila ezartzea
Lurzoru prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, turtsezko ongarritze lanak eta erate lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berralkatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.
- Insusketak
Hazteko, mantentzeke, berritzeke, zuhaizka apaingarriak inautera, erabateko insusketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitatarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

DENDAN ETA TABERNAN, EUSKARAZ ATSEGINEZ

“Merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilpena sustatzeko eta areagotzeko” egitasmoa abiatu dute Salerosleen Elkarteak, Aitxu euskara taldeak, Sopelanako Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak. Lehenik eta behin, euskara teknikariek elkarrizketa egingo diete merkatariei, ekimenari buruzko informazioa emango diete eta euren iradokizunak eta ekarpenak jasoko dituzte. Ondotik etorriko dira ekintza zehatzak: establezimenduan euskaraz egitera gonbidatuko duen kartela edota oharra, langile euskaldunek eurei euskaraz zuzentzeko eskatuko duen txarteltxoa, horien argazkia saltokian, parte hartuko duten establezimenduen argazkien berrirapera eta euskarazko ikastaroa saltokietako langileentzat. Herriko hainbat eragileren, norbanakoen eta udaleko alderdi politikoen babesa jaso du ekimenak.

SAHARAR UMEAK UDAN HARTZEKO KANPAINA

Uztailetik irailera etorriko dira Saharako umeak, eta horiek etxean hartzeko lagun bila dabil Nuyum elkarteak. Umeek esperientzia aberasgarria bizitzeko eta Saharako egoera hilabete biz hobetzeko aukera daukate udaro, kanpainaren horren bitartez; izan ere, elikadura eta eguraldi baldintzak oso gogorak dira basamortuan. Umeren bat hartu gura duenak ondoko telefono zenbakira deitzea dauka: 695 788 185.

UDABERRIA IZANGO DA MARTXOAREN 27AN

Urteroko zita daukazu Udaberri Jaian, martxoaren 27an egingo dute aurten, domekan. Goizeko 11:00etan hasiko dira ekimenak udaletxeko plazan: umeentzako tailerrak eta ludoteka. Eguerdian izango da lore banaketa eta film bat eskainiko dute Kurtzio kultur etxean 18:00etan: JACK, Amazoniako erregea. Gonbidapena hartu beharko da ordu bi lehenago.

Jokoa ez da errenta

Esaera zaharren txapelketa izango da, Nikola euskaltegiaren ekimenez, **apirilaren 17an**



Izena emateko: 695 774 015/ 618 574 445 edota aitor-f@aek.org/ jose-p@aek.org

Diru asko mingainez... poltsan bat ez dio aurtengo leloak. Esaera zaharren txapelketa da eta apirilaren 17an jokatu da; hamazazpigarren edizioa izango da. Apirilaren 12ra arte eman daiteke izena, Nikola AEK euskaltegian, telefonoz edota korreo elektronikoz.

Ohiko legez, bi edo lau lagun ez osatutako taldeka egingo dute txapelketa, 10 euro ordaindu beharko du taldeak, eta 18 euro lagun bakoitzak, bazkarirako. Eguerdian jokatu ditzute kanporaketak eta bazkalostean finalak.

Klaseko jarduera osatu gura dute AEK-koek ekimen honeguz, “*ikasleei euskara erabiltzeko aukerak eta guneak eskaini behar zaizkie eta*”. Gainera, euskaraz “*gero eta erdarakada gehiago botatzen*” direla jakinik, “*euskal esaera jatorrak ezagutzera eman eta, ahal den heinean, erabiltzen ohiatzeko*” helburua ere badaukate. Euskal Herri osoko esaterak dira, euskalki guztiak ezagutzeko aukera eskaintzeko asmoz.

Esaera gehien asmatzen duenak irabaziko du; baina lasai, egongo da-eta kexatzeko eskubiderik. ○

David Bustamante > Peña Txuri surf eskola

“Sahararrakaz harremana egitera eta surf eta futbol materiala eroatera joan gara”



Tarfaia herrian utzi zituzten surf oholak eta neoprenoak

Sahara ez da dena basamortua, kostak badiu milaka kilometro, eta Sopelan bezala, han ere praktikatzeko dute surfa, asko harritu arren. Baina guztiaren falta dutenez, kiroletarako materialarena ere bai. Herrian bildu materiala eroan zuten hara David Bustamantek, Aritza Saratxagak eta Gonzalo Tejadak, urtarilean.

—Nolatan Saharara eta nondik atera zenuten materiala?

—Saharar surflariakaz eta bertako jendeagaz harremana egiteko eta hemen geneukan materiala eroateko joan gara. Peña Txuri surf taldeak eta Ugeraga futbol taldeak utzi digute arropa, eta Asesores de Laminacion enpresak finantzatu du bidaia. Uda eskualdean igarotzera datozen saharar umeek parte hartzen dute gure surf eskoletan. Beti izan dugu hara joateko ideia. Gure lagun batek bazeukan Tarfaia herriko jendeagaz harremana eta bere bitartez

jarri ginen eurakaz harremanetan.

—Tarfaian ibili zineten?

—Bederatzi egunetan egin genuen joan-etorria. Tarfaian utzi genuen Peña Txuriren materiala, taulak zein neoprenoak, eta Al-Aaiunetik behera egin genuen gero, futbol materiala eta arropa utzi genuen han. Sahara oso handia da. Tarfaia Marokon dago, baina ez ofizialki okupatutako aldean. Espainiarrek alde egin zutenean Marokok okupatu lurrak Al-Aaiunetik behera daude.

“Harreman estua egin genuen, senide gisa hartu eta zaindu gintuzten”

Gainera, Argelian badaude errefuxiatuen kanpamenduak, basamortuan.

—Buelatzeko asmorik bai?

—Ahalik eta lasterren. Laguntza behar da eta harreman estua egin genuen. Senide gisa hartu eta asko zaindu gintuzten. Arazo handia dute, baina itxaropena beti eduki behar da. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta banikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Abdelgader Ahmed Baba, Talebomar familiakoa > Sahararik Berangora, ikastera

“Kanpoko laguntza gutxitu da eta kanpamenduek hori beste irtenbiderik ez dute; jendea txarto dabil”

Al Aaiuneko Bucraa herritik dator Abdelgader sahararra. Bertan nagusien eguneko etxea zabaltzekotan daude. Berak zuzenduko du eta lanerako gai baliagarriak ikastera etorri da bi hilabetez. Nagusiek otordu bat eta medikuen jarraipena izan dezatela dute helburu, baita lanpostuak lortzea ere. Berangoko Udalak inbertituko du dirua lan soziala garatzeko.



Apirilaren 2ra arte egongo da Abdelgader Berangon

—Zer suposatuko du egitasmoak kanpamenduko bizilagunentzat?

—Kanpamenduetan egin daitezkeen gauzarik onenak dira horrelakoak. Zentro honen eta beste gauza askoren beharra dago, egoera larria da eta. Oso garrantzitsua da, laguntza oro da ona. Gazteek kanpora joan behar dute han lanik ez dagoelako, edo kontrabandora dedikatzea bakarrik dagoelako. Orain arte kanpoko laguntzatik bizi izan gara, baina krisia dela-eta laguntza gutxitu da azken urteotan. Guk, aldiz, krisia besterik ez dugu ezagutu, eta orain, laguntza eskastu da hemengo krisia dela eta. Kanpamenduek laguntza hori beste irtenbiderik ez daukate, eta beraz, jendea oso txarto dabil. Egitasmo honegaz,

ziurtatu gura dugu nagusiek astean bitan haragia jango dutela eta eguneroko edango dutela esnea.

—Orain arte ikasten ibili zara?

—Ez, azkenaldian ez dut ezer egin. Irakaskuntza txarto dago; boluntario lana da, baina egoera txarra. Batzuk Kuban egon izan dira ikasten eta hezten, baina gero Saharan ez daukate zertan lan egin.

—Gisa honetako egitasmoek lagundu-

ko dute egoera aldatzen?

—Bai, asko. Langileek soldata izango dute eta guztiontzako izango da onuragarria.

—Eta zer moduz zabilta hemen, zer deritzozu Berangori?

—Bizitza oso desberdina da. Esperientzia oso ona izaten ari da, baina ez nintzateke hemen biziko. Ezingo nintzateke ni hemen geratu eta senideak han egoera latzean utzi. ○

Basordaportu Kultur Elkartea > euskaldun eta ezkertiar

“Euskaltzale eta ezkertiarrek gara eta kulturatik eragin gura dugu”



Basordaportu Kultur Elkarteko lagunak

Zentral nuklearra eraiki zuten, lemoiztarrek Basordaportu izenez eza gutzen duten kalan. Egin zuten triskantza naturala gogoan izan zuten Lemoizko zenbait lagunek Basordaportu Kultur Elkartea sortzean. Euskaltzale eta ezkertiar bezala definitzen dute euren burua eta herriko gabezia kulturari erantzuteko gogoz daude.

—Zergatik sortu duzue elkartea?

—2009ko uztaillean herriko bizilagun batzuk batzen hasi ginen. Kultur talde bat sortzea erabaki genuen, herrian ez zegoelako horrelakorik. Herriko euskaltzale eta ezkertiar lagun taldea gara eta Lemoizen kulturatik eragiteko asmoa daukagu.

—Zeintzuk dira zuen helburuak?

—Alde batetik, euskara eta euskal kultura bultzatu gura ditugu. Bestetik, balore ezkertiar eta alternatiboak lan-

duko ditugu, beste gizarte bat posible dela uste baitugu.

—Non eta noiz biltzen zarete?

—Armintzako Portu Zaharra tabernan biltzen gara gehienetan. Hamar lagun gaude elkartearen aktiboan parte hartzen. Baina ateak zabalik ditugu, noski.

—Zer egin duzue orain arte?

«**Hasibariak gara, baina aurrera jarraitzeko gogoz gaude!**»

—Gure lehenengo ekimena Saharari buruzko jardunaldiak izan ziren; horren ostean, Kubari eta Burdin Gerrikoaria buruzko hitzaldiak eta kontzertuak egin ditugu.

—Aurrera begira zer?

—Hasibariak gara, baina aurrera jarraitzeko gogoz gaude! ○

Harremanetarako:
basordaportuke@euskalherria.org

tanta.
estetika

BIBRAZIO PLATAFORMA BARRIA
(Berme profesionalagaz)

20 eta 50 euroko bonoak
(10min-ko saioak)



Basagoiti etorbidea 85 (Algorta)
TF: 645 739 780

Zure beharren arabera ko ordutegia

Torre 2
48980 ALGORTA
94 491 12 71
inatalgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 577 • reparac@ouskalnet.net
Eleta kalea 1 • ALGORTA

AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARRREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTENKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

UMEENTZAKO SURF IKASTAROAK GORLIZEN

Bederatzi urtetik gorako umeentzako surf ikastaroak antolatu ditu Gorlizko Kultur Etxeak apiriletik aurrera. Hilabetekoak eta hiru hilekoak izango dira ikastaroak eta eskolak zapatu eta domekatan emango dituzte. Bosteko taldeetan banatuta egongo dira umeak eta neoprenoak eta taulak emango dizkiete. Izena emateko Kultur Etxera deitu edo hurbildu behar da.

HERRITARREK OSO ONGIA JARRI DIOTE URDULIZI

Urdulizko Udalak inkesta egin zuen joan den urteko azarotik abendura bitartean herriko bizilagunen artean, herriari buruz duten zenbait iritzi ezagutzeko. Gogobetetasun mailari dagokionez, 10etik 7,3 eman diote. Hiru pertsonatik batek uste du bost urteren buruan Urduliz are atseginagoa izango dela bizitzeko. Urduliztarrek begi onez ikusten dituzte azken urteotako proiektuak: Kultur Etxea, enplegu programa e.a. Hobekien baloratu duten alderdia airearen kutsadura eza izan da; nota baxuena herri segurtasunak eroan du.

LOREZAINZTA IKASTARO BARRIAK AUKERAN

Mankomunitateak lore eta zuhaixka edergarrien ikastaro barria eskainiko du apirillean. Talde bitan; bata 16an eta 17an jasoko ditu eskolak eta besteak, 23 eta 24an. Izen-emate orria Mankomunitateko web orrian deskarga daiteke eta agenda21@uribe-kosta.org helbidera bidali behar da.

PLENTZIA

XXIII. Ibilaldi Neurtua egingo dute martxoaren 28an



Aurreko edizioko argazkia, Plentziako Astilleron

Ur-Edur mendi talde plentziarra hasi zen 1985ean Ibilaldi Neurtua antolatzen. Hori desegindakoa, Txixirripatxarra eta Gaminiz Kultur Taldeek hartu zuten lekukoa eta Plentziako Udalaren laguntzagaz martxa antolatzen hasi ziren. Martxoaren 28an XXIII. edizioa egingo dute eta talde bitan banatuta urtengo dira marxistak: 11 urtetik beherakoak batetik (10 kilometro egingo dituzte) eta 11 urtetik gorakoak bestetik.

Udaletxeko eskaileratan jarri dute hi-

tzordua goizeko 08:30ean. Handik Itsasadarreko pasealekutik abiatu eta Barrikara igoko dira. Goiherri zeharkatu eta gero, Plentziara jaitsiko dira barririo; Gandiatik pasa ostean, Elizako Plazan amaituko dute.

Parte-hartzaile guztiek fruta, ura eta freskagarriak izango dituzte anoa-postuetan. Gainera, martxa bukatzen duten guztiek oparia eroango dute etxera. Edozeinek har dezake parte eta izen-ematea doakoa izango da. ○

Mar. 22 - Api. 12

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

- ▶ **Manuel se la Concepcion Ferreiraren argazkiak.** Algortako erakustaretoan. Martxoaren 27ra arte.
- ▶ **Amaia Sanchez Sampedroren argazkiak.** Algortako erakustaretoan. Martxoaren 29tik apirilaren 17ra.

ERANDIO

- ▶ **Inertzia kirolak.** Udal-erakusketa aretoan. Martxoaren 22tik 28ra.

MUSIKA

ERANDIO

- ▶ **Udal musika eskolako ikasleak.** Josu Murueta Kultur Etxean. Martxoaren 26an, 19:30ean.
- ▶ **Dantzaldiak orkestragaz.** Altzagako azoka zaharrean. Martxoaren 28an, 17:30ean.
- ▶ **Luhartz.** Kanpomartxo, Lutxanan. Martxoaren 28an, 18:00etan.

ZINEMA

GETXO

- ▶ **Eden al oeste.** Zine-kluba. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Martxoaren 26an, 22:00etan. 2,90 euro.

SOPELANA

- ▶ **Earthlings dokumentala.** Plaza Beltza kultur gunean. Martxoaren 25ean, 19:30ean.

ANTZERKIA

SOPELANA

- ▶ **Morir (o no).** Martxoaren 26an, Kurtzio Kultur Etxean, 21:00etan.

Izena emateko: albegetxo@gmail.com edo 605 704 385

▶ **Bertsolaritza**

ALBERen bertso afaria: Colina vs. Egaña

Iritsi da Algortako Bertsolari Eskolaren bertso afaria, urtero legez. Berna Etxea jatetxean egingo dute aurtengo saioa, martxoaren 27an eta 21:30ean. Sustrai Colina eta Andoni Egaña arituko dira, oraingoan, nor baino nor. Bertsozale porrokatuok azkar ibili beharko duzue izena emateko, eserleku kopurua mugatua dago eta. Lekua gordetzeko mezua bidali beharko duzue albegetxo@gmail.com helbide elektronikora edota 605 704 385 telefonora. Afariak 20 euro balio du. ALBEK 30 urte beteko du aurten, eta beraz, saio berezia izan daiteke. Zorioneko urtea gainera, izan ere, bigarrenagoz etorri da ABRA saria etxera; Jone Uriak irabazi du aurten.

• **Non:** Berna Etxean • **Noiz:** Martxoak 27, zapatua, 21:30ean

ERANDIO

- ▶ **Cocidito madrileño II.** Altzagako azoka zaharrean. Martxoaren 27an, 19:30ean. 5 euro.

GETXO

- ▶ **Nunca nos regalan flores.** Emakumeak eszenan zirkuitua. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Martxoaren 27an, 19:00etan. 3 euro.
- ▶ **Peru eta otsoa.** Haur antzerkia. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Martxoaren 28an, 12:30ean. 4 euro.

BERANGO

- ▶ **Pasio Bizia.** Apirilaren 2an.

BESTEAK

SOPELANA

- ▶ **Tokiko Landare baliagarriak buruzko topaketa.** Kurtzio Kultur Etxean. Martxoaren 24an, arratsaldeko 19:00etan.

LEIOA

- ▶ **Leihosex.** Aholkularitza zerbitzuan. Martxoaren 25ean, 18:00etan.
- ▶ **Berbalamiñeren kantu afaria.** Betiko ikastolan. Martxoaren 26an, 22:00etan. Poteoa 19:00etan.

URDULIZ

- ▶ **Ipuin kontalaria.** Kultur Etxean. Martxoaren 26an, 18:00etan.

PLENTZIA

- ▶ **Ibilaldi neurtua.** Udaletxeko eskaileretan. Martxoaren 28an, 08:30ean.
- ▶ **Internet ikastaroa hasibarrientzat.** Liburutegian. Apirilaren 12tik 16ra, 10:00etan. Izena emateko: 94 677 53 14.

GORLIZ

- ▶ **Kamisetak margotzeko tailerra.** Ludotekan, Kultur Etxean. Martxoaren 30ean, 17:00etan.
- ▶ **Ludoteka.** Kultur Etxean. Aste Santuko oporraldian, apirilaren 6tik 9ra, 11:00etatik 13:00etara.

BERANGO

- ▶ **Aisigunea, 3-12 adin tartekoentzat.** Santa Ana Kultur Etxean. Apirilaren 6tik 9ra, 10:30etik 13:30era.

GETXO

- ▶ **Txorimalo Gaztetxearen 4. urteurrena.** Apirilaren 6tik 10era. Hainbat ekimen.
- ▶ **Sarea Josten ekimena, hainbat ekintza.** Apirilaren 9tik aurrera, herri osoan.

BARRIKA

- ▶ **Jaietarako kartel lehiaketa.** Lanak Kultur Etxean aurkeztu behar dira, apirilaren 16ra arte.

LEMOIZ

- ▶ **Lore eta zuhaitz edergarrien ikastaroa apirillean.** Izena eman behar da Mankomunitatean.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz

ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

bai, AENOR, AENOR logos.

SATISTEGI CAFE

ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Plazetako artistentzat

Zenbat musika banda, txistulari, ekitaldi politiko, fanfarrea, jaietako pregoi eta bertsolari pasako ziren argazkietan ikusten ditugun kioskoetatik. Plazaren erdian zein albo batean umeen jolasetarako tresna bihurtzen dira maiz. Herri askotan plazen modernizazioagaz batera desagertu ziren; algortarrek agur esan diote orain gutxi. Nora igoko dira orain gure artistak?

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Gorkizen 1962an

Aste Santuko prozesioa

Askorentzako opor egunak dira eta kitto. Baina Aste Santuari, zerbaitengatik esaten diote horrela, eta gurean ere, ospatzen dituzte mezak eta prozesioak, UK-ko zenbaki honetako azala ikusi besterik ez dago. Orokorrean, ordea, egun ez dira asko ikusten gure eskualdeko kaleetan, baina hona hemen Gorkizko argazkia, 1962koa; ez da horrenbeste denbora igaro. Nabari da herritarrek serio hartzen zutela ospakizuna. Arroparik dotoreena jantzita urteten ziren prozesiora, alargunak beltzez, eta umeak, gorbata eta guzti. Egun horietarako planik ez daukanak topatuko du horrelako baten bat non edo non.

INDALECIO OJANGUREN

[berbetan]

Aurten betetzen dira 25 urte Juana Ruiz eta Garbiñe Urdampilleta arropa diseinugileek Algortako ganbara batean euren ametsa josten hasi zirenetik. Gaur egun 600dik gora saltokik osatzen duten amaraunean saltzen dituzte euren sor-kuntzak, eta Iruñean, Bilbon eta Madriren denda propioak dauzkate. Halere ez dira lar urrun joan, Erandion dute-eta lantegia. Halere, munduko hamaika bazterretako moda jaialditan aurkezten dituzte euren “euska modako” proposamenak. Getxoztar diseinatzaile entzutetsuen lantegiko atea jo dugu modaz, denboraren iragaiteaz eta beste hainbestez berba egiteko, atearen beste aldean bien izenean berba egin du *JotamasGe*-ren G-k, Garbiñe Urdampilletak.

Jota+Ge

25 urte modan egonak

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Hastapenetan ikastolako umeentzako aratusteetarako moztarok diseinatzen, horientzako oihalak bilatzen, jantziak josten e.a. zenituzten, ostean Algortan lantegi txikitxo batean hasi zineten diseinuak sortzen... Ordutik 25 urte joan dira eta bidean kontu andana gertatu...?

—Juanak (Ruiz) eta biok batera ikasi genuen Moda Diseinua, urteek aurrera egin zuten, bakoitza hiri eta leku ezberdinetan ibili zen, eta bitartean seme-alabak ere izan genituen... Neuk hiru seme dauzkat eta Juanak bi; eta halako egun batez alkar topo egin eta alkarri esan genion “zerbait egin beharko genuke, hasiko gara?”, eta modu “memeloan” hasi ginen. Bitartean, semeak ikastolara eroaten genituen, eta hori egin heinean bertatik antolatzen ziren kontuetan parte hartzen genuen, bultzatzen genituen, beste ama batzuk umeak txangoetara eroanez eta laguntzen zuten legez, guk ehunak eskaintzen genizkien edo oihalak ebakitzen moztarok egiteko... Alabaina, horiek edozein amak egiten dituen ohiko kontuak dira, disei-

nugile izan ala ez. Eta hala da, Algortan hasi zen gure ibilbidea, lagun batek utzitako ganbara batean... Egia esateko, historia oso ederra da, oso apurka-apurka hasi ginen, oihalak lehenengo Bilbon erosten genituen, ostean Bartzelonan... Gerora etorriko zen moda ferietan, erakusketetan edota desfileetan parte hartzen hastearena, Paris eta... Baina, hori, apurka-apurka landutako ibilbidea izan dela gurea, apurka lantzen joan gara, lan handia eginez... Eta 25 urte daroagu ba-

“Hemengo, Ameriketako, ipar Europako zein Afrika hegoaldeko andrazkoen gustuak ez dira hain-hain desberdinak”

tera, oso ondo konpontzen gara bata besteagaz eta egiten duguna oso gogoko dugu; horrenbestez, zorte handia dugula ere esan behar dugu.

—Hasiera garai haietatik zer edo zer faltan botatzen al duzue?

—Hain arin gertatu da dena, ezen... aurreko egunean, Juana eta biok ere, berbetan geundela, aitortzen genion alkarri, or-

duko garai haietan ez gaudela ez dugula sinesten! Agian, orain dena arinago egiten da, mezu elektronikoei, interneti eta esker ala tamalez, dena arinago antolatu eta pasatzen da, batzuetan bertigoa ere sentitzeraino! Horrek guztiak estutasun eta neke apur bat ere eragiten dit.

—Zenbakitzaileak dira ia parte hartu duzuen erakusketak, feriak edota desfilek, baten batzuk aipatzearen: Madriliko Cibeles, Bartzelonako Gaudi, Paris, Londres, New York, Amsterdam, Kiev,

Mosku e.a. Horietan guztietan ba al da baten bat benetan maiteago duzuenena?

—Agian, AEBetakoak; lehen zirrara sorrarazten zizulako edo txunditzen gintuelako herrialdeak, baliteke gaur egun ere hala izatea; putzutzarra zeharkatzeak duen garrantziagatik ere... bada New Yorkeko Fashion Coterie aipatuko nuke. Bertaratu ginen lehenengo aldian, gogoan



daukat, atentatua baino lehenago izan zen, feriara sartzekotan geundela, apur bat harrituta geunden haregaz guztiagaz, alkar begiratu eta esan genuen “eskumako hankagaz sartu behar dugu”, eta hala egin genuen materialki, atetik pasatzen lehenengoak gu bion eskumako hankak izan ziren, kaiku bi legez, baina badakizu “bada-azpada” egiten diren kontu horietakoa da. Eta beti legez joan zen dena. Gero konturatu gara leku guztietan beti berdina gertatzen dela, gutxi gorabehera beti antzerako, sektore batzuek arropa jakin bat gurago dute eta beste batzuek bestea, bai-

na azken finean berdintsu... Gainera, gu ordurako Europan saltzen genbiltzan han aurkezten genuen bilduma, eta egia esateko, berdina erosi ziguten New Yorken ere! Beraz... Polita bada oro har mundu guztiak gogoko du; eta garaiotan informazioa trukatzeko aukera dagoenez, emakumezko kook antzerako gustuak ditugu, hau da, hemengo, Ameriketako, Europa iparraldeko zein Afrika hegoaldeko اندrazkoen gustuak ez dira hain desberdinak...

—Euskal modaz berba egin daitekeela uste duzue? Hala bada, zerk egingo luke bereizgarri? Zerk bereiziko luke, zuen ustez, beste estilo batzuetatik?

—Nik uste baietz, jendeak uste duena baino gehiago gaude hemen, hau da, euskal modako enpresa asko daude. Eta egia da gu goiburu horregaz, “euskal moda”, hasi ginela, eta horregaz jarraitzen dugu, noski! Juana eta biok lehenengotako ferietara, modu serioan ordurako, joaten ginen “euskal moda” izenpean edo babesagaz aurkezten gintuzten. Horrela eginda errazagoa egin zitzaigula ere aitortu behar dut, agian lelokeria da, baina eskatzen dituzten paperak eta bestelakoak egiteko erraztasun handiagoa genuen, Eusko Jaur-laritzako edo Aldundiaren diru-laguntza txikitxoren bat ere lortzen genuen, autobusean joateko jendea batzen zen e.a. Babestuta legez sentitzen ginen. Bestalde, euskal modaz jendeak esaten duena hau da: serioak garena, zintzoak, langileak...

Hori moda enpresen inguruan ere esaten dute, jendeak batzuetan berritsuagoak edo txolinagoak garelako ustea izaten badu ere, eta ez, hemen denak lakoak gara gu ere... Berdin lan egiten dugu, baina beste oinarri eta baliabide batzuekaz.

—Eta euskal herritarrei dagokienez, zein da zuen ustea? Hau da, Euskal Herriko

“Hemen emakume andana dago bildumen sormen-eskaintzen buru-buruan”

gizarteari modaren begietatik so eginez gero, zelan ikusten duzue?

—Neure aburuz, nabarmentzekoa den alde bat, edo nik behintzat azpimarratuko nukeena zera da: koloreen gaia edo arloa oso ondo daroagula, hau da, ez dugu ia inor ikusten kalean koloreak konbinatzeko orduan edo nahasterakoan astakeriaren bat egin duela pentsatzeko beste. Hemen jendeak gustu ona dauka, gustu pertsonala, eta bitarteko koloreak erabiltzen ditu, nik uste hori giroak emoten duela, eta ikusteko, transmititzeko eta errespetatzeko errazak direnak dira, begietara atseginak.

—Zuen diseinuen izaera deskribatzen duten izenondoak eta esaerak dira hurrengoak: bere buruarengan sinesten duen emakumezko ziur batentzako jantziak dira, اندrazko garaikideentzakoak,

“Ibiltoki gainerako neska batzuen argaltasuna gehiegizkoa da! Asko oso umeak dira, ume gorputza dute!”

elegante joatea gogoko dutenentzakoak... Zer dago horren guztiaren atzean? Zelan ulertu beharko litzateke hori?

—Guk bilduma ezberdina eskaintzen eta egiten dugu, kolore askotakoa, kontraste handiak dituen, ehundura desberdinen nahasketak dituen e.a. Eta horrek guztiak bereizten gaitu. Orduan, gurea ez da oina-

rrizkoa edo funtsezkoa deritzon arropa mota, ez da oharkabean pasatzeko jantzi-ko genukeena... Horregatik diogu bere buruagan konfiantza eta segurtasuna duten emakumeentzako arropa dela, zer gura duen dakien اندrazkoarentzako arropa da, bere burua eder eta dotore ikusi gura duen emakumeari begirakoa, eta au-

sarta denarentzat ere, gure jaka, jantzi eta berokiak janztera ausartzen denarentzat, alegia...

—Ibiltokiaren gainerako modeloak erreginak diren bitartean, diseinugileen artean badirudi gizonentzako delako ospea... Emakumezko eta diseinatzaile zarten heinean, zer deritzozue?

—Neuk ez nuke esango hala denik, emakumezko diseinugile asko dago hemen zein nazioartean. Hemengoan artean, berbarako, askotan alkar ikusten dugunak aipatzearen: Miriam Ocariz, Mercedes de Miguel, Carmen Izuzquizak ere badu *Pan con Chocolate* ume arropa markarako bildumatxoa e.a. Horrenbestez, hemen emakume andana dago bildumen eskaintzen buru-buruan. Galiziarrek eta katalanak ere, esaterako, Sita Murt; emakumezkoak dira eta gainera lagunak. Eta urrunago

begira, izugarri gustuko dudana, Alberta Ferretti, edo Coco Chanel... Gertatzen dena da, emakumezkoak... Kontua da beti esaten dela “gizonentzako diseinatzaile asko dago”, eta agian ez gara konturatzen emakumezkoak ere asko direla, agian ez delako hainbeste esaten emakumezko diseinugile asko dagoela, hori izan liteke;

baina egon badaude, eta gainera, ez dira, gara, gutxi! Asko eta asko baino!

—Saihestu ezineko gaia da, moda kontuez jardutean, aspalditik datorren modeloen mugaz kanpoko argaltasunaren auzia. Zuek barru-barrutik bizi duzue kontua, lekuko zuzenak zarete, zein da zuen iritzia?

“Guk egin duguna, ganbara batean hasiz eta handik nazioarteko merkatura heltzea, edonork egin dezake...”

—Hain zuzen ere oso txarto dago, zeharo eta ikaragarri argal daude.

—Gauzak aldatzen, onera doaz ala...?

—Kontu guztiak legez, gauzak ez dira egun batetik bestera aldatzen. Halere, nire ustez, jendeak gero eta kontzientzia handiagoa dauka, eta esan esaten dute, “lar, lar argal daude!”. Eta esatearen poderioz eta, nik uste, aldatuko dela, hoberantz. Izan ere, ibiltoki gainerako neska batzuen argaltasuna gehiegizkoa da! Gainera, oso umeak dira! Ez daukate emakume gorputzik, ume-neskato gorputzak baino! Eta neskatu argalen gorputzak gainera!

—Krisiak jo al du moda eremua? Zuen kasuan, webguneko barrien arabera,

ezetz emoten du, aurreko urteko salmentakaz alderatuta aurten %50eko hazkundea izan baitute; eta merkatu barrietara, berbarako Libano, Errusia edota Ukranira salto egitea erabaki duzue...

—Krisiak erabat mundu guztiagan eragina dauka. Gure kasuan, heldu aurretik ere entzuten zen bazetorrela. Etengabe

barritzen gabiltzan enpresa gara, bai ohiko urtaro-bildumen kontuagatik, baina horrez gainera baita kudeaketa arloan ere, horregatik hileroko batzarretan barrikuntza gaia eta krisiaren egoera kontuan hartzen hasi ginen lehenagotik. Alde batetik gastuak estutzea adostu genuen, bestetik ideia barriak ere behar genituen zetorrenari aurre egiteko. Horren albotik, diseinuan, bilduma barri bi egitea erabaki genuen, denboraldi bitan; hau da, COQUETTE by J+G (neurri apur bat handiagoko arropa) eta MIKAELLA ESS (puntuazko arropa). Eta egia esan, harrera polita izan dute biek. Bestalde, nazioarteari begira aipa-

tutako merkatu horiek ere sustatu ditugu; lan gehigarria da, baina... Hori izan da krisiaren aurrean hartu dugun jarrera, egia esan oso ondo joan zaigu.

—Erronka barriak ere badituzue, Txina eta lurralde arabiarretako merkatuetan sartzeko asmoa, besteak beste. Entzuten da hango merkatuetan sartzea ez dela batere erraza, hango gizartea itxiegia dela...

—Zaila da, den-dena da zaila, baina ez ezinezkoa; gainontzekoak joan badira gu ere bai, eta haiek etorri badira zergatik ez gara gu joango?! Merkaturia zabalik dago batzuentzat zein besteentzat. Horregatik, ez dugu gure begi aurrean bendarik lotu behar. Estatu espainiarretik hasi ginen, gero Portugalera, ostean Irlanda, ondoren Ingalaterra... Apurka-apurka egin dugu aurrera, eta orain hazte edo zabaltze prozesuan dauden merkatuetan ipini dugu gure begirada, prozesu horretan daudelako ere Europa zaharrera baino errazagoa da sartzea. Gizarte tradizionalagoak, itxiagoak direla eta... ez dut halakorik uste; ez dago bidaiatzea, joatea, jendea ezagutzea baino hoberik konturatzeke, hasieran AEBen inguruan esandakoa legez, jende arrunta dela, jasotzeko prest dagoena. ○

Aukera eta proposamen barriak

—JotamasGe-ren dendetan bada atentzioa ematen duen beste kontu bat: estilista birtuala deitzen zaion teknologiarrena eskaintza, alegia. Zertan datza? Jendeak zelako harre-
ra egin dio?

—Aldageletan janzki batez sartzen garenean, irudi batzuen bitartez janzki horregaz ondo uztartuko den kamiseta, jaka, praka edo dena delakoa proposatzen digu teknologia horrek. Polita da, interesgarria eta dibertigarria ere bai! Jendeak harrera polita egin dio, lehen esan legez barrikuntza den orori zabalik gaude denok, eta guztiok gura

eta gogoko ditugu gauza edo proposamen barriak...

—Aurtengo udabarri-udarako zein da zuen proposamena? Zer ekarriko edo jantziaraziko digu Modak?

—Gure aldetik, beti bilatzen dugu “leit-motiv” bat bilduma bakoitzeko, eta datorren udabarri-uda honetako bildumarako gai nagusia Naturaren Elementuak da. Hala, Lurrari lotuta estapatu leunak erabili ditugu, tonu beixak eta pastelak, pitoi baten itxurak e.a.; Aireari dagokionez, zuri, baltz eta gorri koloreko estapatua, elai batzuen irudiagaz; Itsasoaren alorra koralen imajinakaz

ordezkatu dugu, itsas-hondoagaz ere bai, beraz turkesa eta koral koloreak e.a.

—Amaitzeko, gomendio edo aholkuren bat?

—25 urteren ostean hasieran besteko animoagaz jarraitzen dugu, moda gogoko izaten jarraitzen dugu, bezeroa ere gustuko dugu... Eta esan gura nuke, guk egin duguna, ganbara batean hasi, handik urten eta nazioarteko merkatura heltzea, edonork egin dezakeela, lan asko eta handia eginez, norbere buruan konfiantza edukiz eta egiten duzunagaz gozatuz gero!



Hiriko animaliak

Zooak ez dira animaliak gordetzen dituzten hirietako txoko bakarrak. Plazak, taberna zuloak, dendak, zein autobus geltokiak hanka bidun animalia basatiz beteta daude. Carlos Terreros (Getxo 1972), UK-ko aspaldiko laguna, horiek guztiak ehizatzen ibili da *Hiriko animaliak* bilduma osatzeko. Tres60 kirol argitaletxerako skateboarding argazkiak egitea du ogibide; baina patinean doazenez gain, egunerokoan mugitzen diren oinezkoak erretratatzeko du gustuko.

Argazkiak: **Carlos Terreros**









BETIKO

IKASTOLA

**GURE GAURKO
ETA BETIKO
IKASTOLA**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Leioako ikastolen Elkartearen ikastola bakarra.



Ikastolen Elkarte

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAURKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Ipar Euskal Herria, begira

Euskal Kultur Erakundearen **Iparraldea XXI dokumentala** sarean ikusgai



Dokumentala ikusteko: www.eke.org/partaideak/blogak/iparralde21/bideoa/

Euskal Kultur Erakundeak (EKE) ekotzi du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzagaz, **Iparraldea XXI** dokumentala. Bultzatzaileen esanetan, "Ipar Euskal Herriko gazteriaren ikuspegi artistikoa eskaintzen du" 20 minutu inguruko lanak, eta EKEko zuzendari Pantxoia Echegoinen eletan dokumentalaren helburua "Hegoaldeko gazteengana eta beste publiko mota batengana" heltzea da.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa osatzen duten 3.000 km koardroko Ipar Euskal Herrian, Iparraldean, 289.000 lagun inguru bizi dira eta horien "%30 inguru mintzatzen dira edo ulertzen dute euskaraz". "Iparraldea ezagutzen ote duzu?" galderari tiraka bertako jende ezagunari egindako elkarrizketetan oinarritzen da dokumental labur hau. Hala Yves Sallaberry "Xala" pilotaria gidari lanetan dela, "XXI. mendeko Iparralderat eramanen" gaitu, apur bat edo hobeto ezagut dezagun.

Xalاک Iparraldeko hainbat kultur

eragile gazte aurkezten dizkigu, eta haien bitartez egingo dugu Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdin barnako bidaia: Heletako Euskal Herria Zuzenean musika jaialdia, itsasoa, surfa eta eskolak, Amaren Alaba ahots-taldeko kantariak, Dantza Hirian festibala, Amets Arzallus eta Maiana Irigoyen bertsolarien sentipenak, MAK taldea-

«Bidaide: Xala pilotaria, EHZ jaialdia, surfa, Amaren Alaba, MAK, Dantza Hirian, bertsolariak e.a.»

ren rap euskalduna, Xalaren pilotakada bortitzak e.a.

Eta gu, Itxaro Borda idazleak Xalaren sakelekora bidaltzen duen mezuari atxikitzen gatzazkio, hala dio: "*Hau guzia idazteko gaude gu, literatura egileak: bizi, dasta, irakurri eta etorri...*". Goazen bada alkar ezagutuz, batera egitera... ○

Informazio gehiago:
www.eke.org/euskal_herria/iparralde
www.iparralde.info

Poetic Babies-en lehenengoa

Soul, hip-hop, jazz eta technoaren uztarketa **Mikel Andonegiren** egitasmoan



Informazio gehiago: www.hotsak.com/artistak/poetic-babies

Urte akabuan plazaratu zuen Mikel Andonegi musikari, piano jotzaile eta abeslariak *Adding Strangeness to Your Sense of Beauty since 1998* (Gaztelupeko Hotsak) diskoa, Poetic Babies bere egitasmoaren baitako lehenengo lana. Musikari ibilbidean zehar jaso eta landu dituen eraginen bateraketa legez aurkeztu dute eta batez ere soul, hip-hop, jazz eta technoaren ezaugarrien uztarketatik sortutako musikak eta letrak batzen dira 13 kantaz osatutako lanean. Poetic Babies, ahots arazoak osatu heinean, 2003an John Roggieren laguntzagaz, abiatu zuen Andonegik; jazzeko piano jotzaile eta beste zenbait musika talde-

tako kide izan eta ibilbide luze-oparoaren ostean: 80. hamarkadan M-AK pop abangoardiako taldekide izan zen; 1989an, 16 urte iraungo zuen AEBetarako bidaiari ekin zion, han J Dill X abeslariagaz "rock baltza"-ko Lovehead taldea sortu zuen; 1992an bakarkako bidea hartuta (teklatu, ekoizle eta abeslari jardunean) horren emaitza *Illegal Alien* (1996) izango zen; gero, jazz musikari ezagunen alboan jardun du pianoa jotzen eta 2005 aldera Londresen 4Brother and a Ghost jazz taldean ibili zen Errabal-Hotsak etxeak euren diskoa plazaratu zuen... Orain bere egitasmoari eutsiz barriro, lan interesgarri hau dakarkigu. ○

diskoak

Lain
Lain
Elkar



Hamahiru kantuk osatzen dute Villabonako taldearen lehen diskoa, bi bertsio tarteko: Lor taldearen *Zure doinua* bata eta Mikel Laboaren *Haika mutil* bestea. Beste kanta guztiek "beren sinadura daramate, beroak bezain gardenak baitira, kolore biziz josiak, mundu berriari parez pare zabalduak". 2009 bukaeran kaleratu zuten.

Ze esatek!
Ze esatek!
Baga Biga



Hamaika plaza hankaz gora jarri zuten dantzan iaz. Hainbat taldeetatik etorritako lagunek osatzen dute Ze esatek! 2009ko biran jo zituzten kantuez gainera, beste sorpresaren bat ere badakarte hamahiru abestien artean. Beraien filosofia da festa eta parranda sortzea, jendea giroan mugiaraztea beraien estilo "ganberroagaz".

Waterproof
The Wet Band
Gaztelupeko hotsak



Azken Danbaka musika lehiaketa irabazi zuen Mutrikuko talde honek, epaimahaiaren sari nagusia eta ikusleena, biak eskuratu zituen, eta hona hemen bere lehen diskoa: Waterproof. Abesti guztiak ingelesez egin dituzte, bat izan ezik; euskarazkoa da azken hori. Rock, pop-rock, funk-rock, soul-rock, stoner... doinuak antzeman dakizkio.

Aniztasuna > Bunpada Sound

Anitzak ekimenaren inguruetan ere in zen Bunpada Sound taldearen hazia, Anitzak Hitzak ikuskizuna sortu zuten zenbait DJ, bertsolari eta dantzarigaz alkarlanean, eta hala, Asier Ercilla, David Nanclares eta Endika Abella buru dituen talde bizkaitarrak "Euskal Herria Anitzak Kolektiboa" egitasmoa edota *Anitzak Hitzak* diskoa dakarte besapean, "aniztasuna ardatz duten musikaz eta letrez" jositako 10 kantuko proposamena. Maroko, Angola, Kantabria, Irlanda eta abarreko musikariak izan dituzte lagun lanaren osaketan eta rapa oinarri bada ere reggae, rock, flamenko, räi, ballenato edota euskal folkloreko doinuek gainean eraikitako lana da, "barneko eta kanpoko heziak gainditu gura dituen ekimena".

Informazio gehiago:
www.myspace.com/bunpadasound

Bilbo > Distrito Jazz

Bilboko Udalak bultzatzen duen Distrito Jazz programak latindar erritmoek, garaikideek, newyorktar joerek eta estilo nahasketek osatutako egitaraua aurkeztuko du aurtien. Besteak beste, Jim Rondoni tronpeta jolearen (martxoak 26, Otxarkoaga), Mariano Steinberg bateria jotzaile argentinarraren (hilak 19, Bidebarrieta liburutegia) eta Lena Sinais euskal taldearen (apirilak 30, Soloko-etxe institutua) kontzertuak iragarri dituzte. Emanaldiak martxo-apirileko barikuetan izango dira, denak doan.



Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroango dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure erosketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

I

Iñaki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Vilamonta plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebxa 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Euskal tradizioak eta jaiak

Eusko Mediaren eta Eusko Ikaskuntzaren
Negua ospatuz liburu-dokumentala kalean

Antxon eta Juan Aguirre Sorondo anaia antropologo-historialariak buru dituen lantaldeak batu, atondu eta prestatu du Eusko Ikaskuntzak eta horren Eusko Media Fundazioak iragan urte amaieran plazaratutako *Negua ospatuz*. *Calor, Color y ritmos de invierno* liburu-dokumentala. Sustatzaileek jakinarazi dutenez, lanaren helburua "gure lurraldeko ospakizunen ezaugarri berezietz jabetzea eta aditzera ematea da, beti ere, ikuspegi erakargarri eta didaktikoa galdu gabe". 130 bat orrialdetan zehar, zein 50 minutuko DVDean ere Euskal Herriak neguan bizi dituen jai, tradizio edota ohiturazko ospakizun garrantzitsuenak batu dituzte, baten batzuk aipatzearen: Gernikako Ma-

«Sua, kantua, doihaintzak, ordezkatzeta, fede errituak (paganoak)... presente»

rijesiak, Olentzero, Tuterako Aingeruaren Jaitsiera, San Nikolas Txiki, Mañal, Danborrada(k), Kaldereroak, Ageda Deuna, Aratusteak (hiriko zein landa eremukoak) e.a. Jai-ohitura bakoitzaren alboan bere jatorria eta azalpen testua dakar liburuak. Lana lau ardatzetan bana daiteke, ardatz bakoitza tradizioagaz eta ospatzeko moduagaz estuki lotuta dago, ondorengoak dira: Sua, Kantua, Ordezkatzeta, Fede erritua.



Liburu-dokumentalak 35 euro balio du

Suaren sinboloa argia, beroa, elikagaiak, izpirituen mundua, garbitzeko, barritzeko eta beste hainbat esangurakaz eta ezaugarriagaz lotzen da; eta ez neguko jaietan bakarrik, beti dago presente; zer esanik ez abesteko euskal zaletasuna, horri lotutako eskean ibiltzea, dohaintzak, opariak... Kristautasunak mozorrazitako usadio-ospakizun paganoen barri ere emoten du lanak. Diotenez, inauteriak amaitzean, edo Piztuera domekan, hiltzen da sinbolikoki negua; hotz-iltuntasunaren urtaroa agurtzen gabiltzan honetan, ia hurrengorako, ospakizun-ohituraren gaineko kontu gehiago dakizkigun. ○

Informazioa: www.eusko-ikaskuntza.org

liburuak



Haragizko amoreak
Omar Nabarro
Susa

Beste behin ere, Edorta Jimenez, Omar Nabarro ezizenaren atzean ezkutatu eta poesia liburu argitaratu du Susa argitaletxeagaz. Seigarren poema bilduma honetan, amodiozko poemak aurkezten dizkigu, erotismo eta sentsualtasunez betetakoak, maitasunetik urrun.



Pololoak 3 Atxeritoko...
Patxi Gallego
Elkar

Euskal superheroi famatuak pasadizo barregarriak dator barriro ere. Hirugarren eta azken atal honetan, Xabineitorren abentura zelan amaituko den jakin ahal izango duzu. Ihes egingo al die guardia zibilen erasoer eta Aldanondo inspektorearen segadei?

[kirola]

Onenetarikoak Getxon

Emakumezkoen IV. Futbol Txapelketa
Fadurako zelaietan **apirilaren 2an eta 3an**



Informazio gehiago: www.bizkerrefutbolalde.com

Laugarren biderrez antolatu du Getxoko Bizkerre futbol taldean "Emakumezkoen Getxoko Futbol Txapelketa" eta ekimena apirilaren 1etik 3ra bitartean egingo da. Getxoko IV. Andrazkoen futbol txapelketan parte hartzen bost talde gonbidatu dituzte, hurrengo hauek dira: Bartzelona, Prainsa (Zaragoza), Levante (Valentzia), Rayo Vallecano (Madril) eta Athletic, horiekaz seikotea osatuko du txapelketaren anfitrioi Bizkerre taldeak.

Txapelketaren lehenengo egunean, apirilak 1, harrera ekitaldia egingo zaie parte-hartzailei Leioako La Avanzada hotolean eta ostean alkarregaz afalduko dute.

Biharamunean, barikuan, (09:15) hasiko dira Bolua III zelaian kanporaketa partidak eta lehiakideek talde bitan banatuta jokatu dute aurre-fasea: A taldean Bartzelona, Prainsa eta Rayo Vallecano lehiatuko dira, eta B taldean Athletic, Bizkerre eta Levante. B taldeari egokitu zaio lehenengo txanda; Levante eta Bizkerre taldeen arteko norgehiagokak emango dio hasiera txapelketari aipatutako belar artifizialeko zelaian; ostean Athletic eta Bizkerre lehiatuko dira

eta azkenik Athleticen eta Levanteren arteko partida jokatu da. Arrastian, 16:30etik aurrera, lehenengo Prainsak eta Rayo Vallecanok jokatu dute bata bestearen kontra, gero Bartzelonaren eta Prainsaren arteko lehia izango da, amaitzeko Rayo Vallecanorena eta Bartzelonarena.

Hilaren 3an, zapatua, finalurrekoak hitzordua izango dute futbolzaleek, 09:30-10:30 bitartean 3. eta 4. postuetatik.

«Bartzelona, Prainsa, Levante, Rayo Vallecano, Athletic eta Bizkerre»

rako sailkatuen arteko norgehiagokak jokatu dira, eta 10:50-11:45 bitartean 5. eta 6. postuetarako partidak.

Aurtengo irabazlea zein izango den erabakiko duen lehia 12:00etan hasiko da Fadurako belar naturaleko zelaian. Partida horretan berdinketa egonez gero, 10 min.-ko luzapen bi egongo dira "urrezko gola"-ren balioaren arabera. Berdinketak iraungo balu bosna penalti-jaurtiketan erabakiko litzateke txapelduna zein izango den. Zorte on, Bizkerre! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA
KIZOL MODA



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, S.L.



Tf. 94 430 52 00 Kasute 18 - ALGORTA

Ekaitz Herrero eta Fabio Gonzalez > Gaztehgam elkarteko kideak

“Gure izaera defenditzera goaz; gazteei zuzentzen diegu gure proposamena”

Sexu askatasunaren aldeko jardunaldia burutu dute asteburuan Algortan, martxoaren 20an. Euskal Herriko gazteria gay-les askapen mugimenduko Gaztehgam taldeak antolatu du eta topaketa baino egun batzuk lehenago, bertako partaide bigaz solas egiteko aukera izan genuen, Fabio Gonzalez eta Ekaitz Herrero algortarragaz. Eskualdeko gazteek elkar ezagutzeko eta aurrerantzean dinamika barriak abiatzeko aitzakiatzat baliatu zuten ekimena.



Jardunaldia egin zuten Algortan martxoaren 20an, sexu askatasunaren alde

—Sexu askatasunaren aldeko jardunaldia izango da, zer egingo duzue?

—Arrastian hasiko dira hitzaldiak eta tailerrak, Aldai Patronatuan. Triki poteoa egingo dugu ondoren herrian zehar. Gauean Txorimalo gaztetxean izango da bertso-afaria, Pakoak taldearen antzerki-showa eta parranda.

—Zergatik eta zertarako?

—(E) Algortan aspaldi ez da egin horrelakorik, hitzaldiren bat egin zuen Ehgam-ek Gorrondatxe elkartearen baina orain urte batzuk. Beraz, inguruan zerbait antolatzeko nahia eta beharra geneukan, gazteak erakartzeko, elkartzeko eta sentsibilizatzeko. Algortan izango da, baina eskualdeko, Ezkerraldeko eta beste toki batzuetako lagunek ere parte hartuko dute. Bertako jendartearen dotrina apur bat atzerakoa da eta.

—(F) Gaztehgam iraultza sexualerako guneak sortzen ibili da beti. Topaketek filosofia horri erantzuten diote.

—Zein helburu daukazue?

—(E) Helburua da teoriko mailan, hi-

tzaldiakaz, norbanakoak bere burua kokatzea, dauden arazoez sentsibilizatu, baina baita giro polita sortzea ere, gustura egotea eta ondo pasatzea.

—Beste dinamikak sortzeko abiapuntu izango da?

—(F) Bai. Aspaldi ez genuela horrelako topaketa indartsua antolatzen, eta seguru hemendik aurrera dinamika horregaz jarraituko dugula.

“Zerbait antolatzeko nahia eta beharra geneukan, gazteak erakarri, elkartu eta sentsibilizatzeko”

—Baina eskualdean antolatuta lan egiteko asmoa daukazue?

—(E) Bai, dagoeneko jendea badabil lanean, gutxi dira oraindino, Gaztehgam ez delako oso ezaguna eskualdean.

—(F) Baina izango da.

—Gazteak erakartzea aipatu duzue.

—(F) Ehgam-en eta les-gay-trans mugimenduan, konturatu ginen hutsunea zegoela, belaunaldien arteko apurketa; horregatik sortu genuen Gaztehgam.

Gazte ikuspuntutik prestatu ditugu topaketok, gazteek beste modu batean bizi dutelako sexualitatea. Beste belaunaldiak elkarlanean gabiltza, baina gur esparruak ere behar ditugu hausnartu, pentsatu, egiteko eta ondo pasatzeko.

— Gaur egun modan ei dago homosexualitatea; hedabideetan normaltasunez agertzen omen dira pertsona homosexualak, baina irudi naturala al da hedabideek ematen dutena?

—(E) Beno, hori nahiko eztabaidagarria da. Komunikabideetan heterosexualen ikuspuntutik jorratzen dute gaia eta

rolak. Mugimendu guztia ez da horrelakoa.

—(F) Normaltasunagaz apurtu eta aniztasunagaz hasi behar da. Agertzen diren gayak, askotan estereotipo bati erantzuten diote, baina era berean, jendartea gogaitzen duena da luma edukitzea; guk lumaren aldeko aldarrikapena egiten dugu, gura duenak eduki dezala eta egin dezala gura duena. Hau da, aldarrikatzen dugu rola apurtzea eta norberak gura duen bidea har dezala. Ez dugu bihurtu gura dogma bat eta esan telebistan agertzen den estereotipoa txarra dela, haren aurka egin eta justu kontrakoa egitea, ez. Hori izango litzateke beste rol bat sortzea. Aniztasuna da sortu gura duguna.

—Kontua da hedabideetako irudiagaz ematen duela jendartearen naturaltasunez onartzen dela homosexualitatea, baina horrela al da benetan?

—(E) Armairu asko dago, kalean eta leku guztietan; armairu horiek daude bazterketa soziala pairatzeko beldurragatik.

—Horregatik, gazteek beren sexualitatea aske bizitzen laguntzeko helburua dauka jardunaldiak?

—(F) Gazteen artean gaur egun homo-

fobia oso zabalduta dago, ikastetxeetan “marikoi” hitza asko entzuten da; horregaz ez da apurtu oraindino eta behar-beharrezkoa da gazteok horren aurrean zerbait egitea. Horri erantzuten dio gure proposamenak. Gazteen artean homofoboan aurka gogor egingo dugu. Indarkeria modu asko dago, irainen

“Legeetan eman urratsak gozoki pozoinduak izan dira nolabait, eta jendea apur bat desmobilizatzea lortu dute”

atzean indarkeria fisikoa ere badago. Beraz, gure eskubideak eta izaera defenditzera goaz. Gazteei zabaltzen diegu gure proposamena, baina homofobia dena ere, kontuz ibil dadila, egoera salatu dugulako.

—Marikoi gizonei, baina zer gertatzen da emakumeakaz, jendartearen bizi duten zapalkuntzak ere eragiten al du lesbianismoa are ikusezinago izatea?

—(F) Bai, hemen mutil bi gaude, alde horretatik ere ikus daitezke.

—(E) Bizkaian badaude emakume lesbianen elkarteak, baina gure kasuan, Ehgam-en, gutxi dira.

—(F) Bai, eta mugimenduak hausnartu beharko du horri buruz. Ikusezina ez

bakarrik emakume lesbianen kasuan, transexualenean ere bai. Horregaz apurtzen saiatzen gara.

—Urratsik eman al da azken hamarkadatan sexu askatasunaren bidean?

—(E) Baietz esango nuke, oso agerikoak ez izan arren. Pixkanaka jendarteak eman ditu urrats batzuk.

—Eta zereginik badago oraindino?

—(F) Askok dago egiteko. Ez da kontrasesana; aurrerapenak eman dira, baina borrokatzeko asko dago. Gaztehgam-en lehen kanpainak zioen “Dena lortuta badago, zergatik ezkutatzen duzu?”. Izan ere, mezu hori zabaltzen dute, dena lortuta dagoela.

—(E) Jarrera hori oinarritu da legeetan. Ezkontzeko eta harremanak ofizial egiteko eskubidea daukagu, poliziaren zein ejerzitoaren parte izan gaitzke... Urrats horiek, nolabait, gozoki pozoinduak izan dira gay-les-trans mugimenduarantz. Apur bat desmobilizatzea lortu dute. Baina estereotipohoriakaz apurtu behar da askatasun sexuala lortzeko. ○

aldizkaria **etxean**
jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefona.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37

Ibon Rodrigez > Galea

“Gabon Zaharrean herrian garagardo pare bat hartu eta Galearrantza abiatzen gara”



“Hogei urte baino gehiago dira lagun bat lehen aldiz itsasoratu zela eta urte horretan gainontzeko lagunak bildu ginen Gabon zahar egunean”

Herri honetako lekurik gustukoenez pentsatzen hasten banaiz oroimenak datozkit burura, gaztarokoak batzuk, ez hain urrutikoak beste batzuk. Beraz, pentsatzen eta pentsatzen egun urtero gaztaroko lagunak elkartzeko gaituen lekua aukeratu dut.

Izatez ez da agian leku hori kuttunena izango, baina hogei urte baino gehiago irauten duen lagunaren arteko ekitalditxo baten testigua denez horri ekingo diot. Galeako aparkaleku zaharren inguruan ari naiz, ez errepide bukaeran zegoen aparkalekuaz, apur bat gorago zegoenaz baizik. Gaur egun ez da bertan aparkalekurik, baina lekua oraindino hor dago, aldatuta bada

ere. Inork pentsa dezake Galearen inguruan gauza asko gertatzen dela, horien artean paella txapelketa esate baterako, eta bestalde herri honetako hainbat eta hainbat bikotek eurentzat gorde nahi dituzten beste hainbat gauza, baina ez naiz horretaz ari.

Hogei urte baino gehiago dira lagun bat lehen aldiz itsasoratu zela eta urte horretan gainontzeko lagunak bildu ginen Gabon Zahar eguneko arratsaldean Galean. Kotxeetan musika, bakoitzak txapler bat bota behar zuen (beno batzuek ez genuen bat ere bota, eta beste batzuek ahal zituzten guztiak), ondoren txanpaina atera, plastikozko edalontziak eta agian galleta batzuk, topa egin eta buelta herrira ohiko

poteoari ekiteko. Gabon zaharreko afariaren atarikoak ziren.

Hogei urte geroago berdinetan segitzen dugu, ezkondu egin gara batzuk, banatu beste batzuk, umeak jaio eta hazi, baina oraindino ere Gabon Zahar egunean, arratsaldeko seietan The End tabernan lotzen gara. Garagardo pare bat eta Galearrantza abiatzen gara. Ez gara beti denok egoten, baina bai denon txaplerok, horrela urteak joan eta urteak etorri Galean biltzen gara lagunak. Beraz gaurdaino etorri den, eta etorkizunean abiatuko den oroimen bati lotutako lekua da aurkezten dizudana. Galeako parkin txiki zaharra. ○

Katea IV

Goizean goizetik gozo-gozo



Katea IV jatetxeko lantaldea

Kaleak jarri aurretik zabaltzen dituzte ateak Erandioko Katea IV jatetxek: “Goizeko 5etatik tortilla pintxoak ditugu”. Dani Abarrategi erandioztarrak orain 14 urte jarri zuen kateko lehen maila; Asuako jatetxea izan zen lehena eta orain urtebete Erandion zabaldutakoa izan da azkena: “Bulego eraikina egingo zutela jakin nuen eta bertan jatetxea zabaltzea aukera ona izan zitekeela pentsatu nuen”.

Goizaleko 5etan zabaldu eta gaueko 10etan ixten dute: “Garrantzitsua da goiz zabaltzea, taberna gutxi daude ordu horretan”. Gosariak eta pintxoak eskaintzeaz gain, eguneko menuak dituzte astelehenetik barikura, langileei begira batez ere. Etxeko janaria eskaintzen dute, betikoa.

Asteburuetan enkarguz egiten dute

behar; ospakizun bereziak zein enpresa bazkariak antolatzen dituzte: “Indaba janak, parrilladak edo eskatzen digutena egiten dugu”.

Abarrategi pozik dago urte honetan izandako erantzunagaz: “Lau kateetatik Erandiokoa da hoberen funtzionatzen duena. Ontziolatik jende asko etortzen da; baita inguruko fabrika eta bulegoetatik ere”.

Krisiagatik galdetzean beste askotan baino erantzun positiboagoa aurkitu dugu: “Nirea ez da luxuzko zerbitzua, horregatik ez dut gehiegi nabaritu. Hala ere, 2009. urtearen hasieran beherakada egon zen, %20koa gutxi gorabehera. Orain gora egin du barriro; eusteko nabikoa daukat orain”. ○

Jose Luis Goyoaga 32, ERANDIO
Tf. 94 467 24 98



• gosariak
• txuletoia • bakailoa
• arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92

Artea Euzko Euzkian, Gobeletza Euzkoaren artean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25

AREETA



ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaitan!!

Alangoharri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



GALDARETXE

• Moidagan 36, GETXO Tf. 94 491 11 25
• Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
• Sabino Arana 57, LEIOA Tf. 94 464 40 58
• Tellebax 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
• Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01

Toponimoa > Galea

Galea (Iurmuturra):

Galea izenak amildegi, Iurmuturra eta inguruan dagoen leku zelai handia izendatzen du. Gaur egun golf zelaia dagoen ingurua herri lurra izan zen getxoxtarrek abereak eramateko. Beste herri lurra bezala. XIX. mendean udalak saldu behar izan zuen. Egunduan zer dagoen ikusta deigarria da 1881ean esaten zena: Esta destinado a pasto comun gratuito y recreo de ganados. Produce hierba para ganado y para argoma para consumo de los vecinos convertida en abono.

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidia 9
T: 491 14 87 46990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Angeruaeren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 490 01 87 46990 GETXO

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

Tf./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbo@basalbobaserria.com



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aralazo z.g. • T.E.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangoberri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

"Gozaki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lisomariak

Orduña Mendatea 1 Toletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z.g.
Algorta

*Tf. erretabak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p>URA</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Ohi baino lanpetuago ibiliko zara beharrez, baina irabaziak ekarriko dizkizu, bai arlo ekonomikoan eta bai pertsonalean ere. Edozein arazo konpontzeko gauza zara.</p>	<p>OTSOA</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Gauza on asko lortuko duzu eta meritua zurea izango da, nahiz eta inor konturatu ez. Etxekoan artean oso gustura sentituko zara, aspaldiko partez; aprobetxa ezazu unea.</p>	<p>ADARRA</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Egoera latz eta mingarrien aurrean patxada handia agertzen duzu eta horregatik jendeak zuzana jotzen du laguntza eske. Zure mugak ezagutzen badituzu, ez diozu inori kalte egingo.</p>
<p>AITZURRA</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Bataren ala bestearen alde azaltzea eskatzen badizute, saia zaitetz zintzo jokatzeko. Ez zaitetz jokoan sar zuzenean ukitzen ez bazaitu edo zure kalterako izango bada.</p>	<p>HOSTOA</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Zure zintzotasunak, gauzak hain argi esateak, pertsona bat baino gehiago min lezake. Diplomaziaz gauza bera esan daiteke. Eta gogoan hartu, iraganeko arazoak... iragana direla.</p>	<p>EGUZKIA</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Nahiz eta zu konturatu ez, nerbioak jota zabilta, lasaitu behar duzu. Lasaitasunetik abiatzen bazara hobeto egingo diozu aurre etor daitekeenari, eta gainera, ez duzu liskarrik izango.</p>
<p>GARIA</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Bikotekideagaz gozatzeko garai ona duzu. Ez badaukazu, harremanen baten aukera ikusten da. Zure eskuetan dago, seduziorako zure gaitasuna topean dagoelako: eskatutakoa lortuko duzu.</p>	<p>LASTOA</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Inguruko enragin txarretik urrundu, ez zaitetz ergela izan, ekaitza dagoenean onena porturako bidea hartzea da. Denbora gehiago eskaini zeure buruari eta zure lagunak ondo aukeratzeari.</p>	<p>IRATZEA</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Umilagoa izan eta onar ezazu behingoz inor ez dela egia osoaren jabe. Besteek entzun, gogoeta egin. Zure iritziak argi eta garbi azaldu, eta ez utzi gauzak erdibidean.</p>
<p>META</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Oso sentikor egongo zara, eta baliteke malko bat baino gehiago isurtzea, horrenbeste maite duzun pertsonak eraginda. Oraingo minak merzei du, epe luzera saria jasoko duzu eta.</p>	<p>HAZIA</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Arreta handia eskaini zure inguruan gertatzen denari. Itxuraz interesik ez duen zerbaiti garrantzirik ez emateak, lorpen handi baten ateak itxiko dizkizu eta. Ez ezazu egunotan ezer sinatu.</p>	<p>NEGUA</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Gozamenerako eta dibertsiorako garai ona baina ez, ordea, negoziotarako. Erabakiren bat hartu behar baduzu, itxaron. Aprobetxatu eta denbora igaro ezazu lagunakaz, etxeokaz...</p>


PRAKAGORRI

ERAGINKORTASUNA, KALITATEA ETA EMAITZAK BERMATUZ.


Uhlenen jasoko irakurketa azkarra, memoriaren garatzeko teknikak, ikasketarako metodo aurreratuak, denboraren optimizazioa eta kudeaketa, kontzentrazioa, pertsona- eta lanbide-garapena, oratoria, idazkera bikaina... etab.

**IKASKETETAN ETA LAN JARDUNEAN ETEKIN HOBEA LORTZEKO
TEKNIKA AURRERATUAK ESKAINTZEN DITUGU.**

PRAKAGORRI S.L. Jesusen Bihotza kalea 2A GETXO (BIZKAIA)
Tf. 685735484 - 944915763 prakagorri@prakagorri.es - http://www.prakagorri.es



HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuma

1. Gelditzeko lekuak, geltokiak. 2. Europar Batasunaren laburtzapena. Kare bizia egiteko labea. 3. Biluzi, gabe, hutsik. Itsas ugaztun handiak. 4. Hitzarmen. Musika nota, eskalan bosgarrena. Lehenengo bokala. 5. Bizkaieraz, itsusiak, irudi eskasekoak. Zilarraren ikur kimikoa. 6. Lehenengo pertsona. Alemaniaren mendebaldeko antzinako lurraldea. 7. Bigarren bokala. Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko erakundea. Aita..., Frantzia opari gehienak egiten dituen pertsona. 8. Batez ere irinez, gurinez, eta azukrez osaturiko oreaz eginiko gozoki handiak. Emakume izena. 9. Hiriko agintari gorena, auzapeza. Bizkaiko kostaldeko udalerria. 10. Naurukoak.

Goitik behera

1. Ia beti. 2. Erabaki, xedatu, epaitu. Gabarra txikia. 3. Röntgen. Garra. Uztai. 4. Nor deklinabide kasuaren atzizkia. Nitar. 5. Euskal sindikatu abertzalea. Unatu, akitu. 6. Esanarazi, esatera behartu. Suari dariona. 7. Imo finkatu gabe, koloka. Ez eme. 8. Kolpe baten, hotz handiaren eta abarren ondorioz larruzalak hartzen duen kolore. Joaki naiz. Kontsonantea. 9. Gipuzkoako udalerria, Urola Kostan. Deitorea, auhena. 10. Pluralean, kaka egiteko gogoa.

Soluzioa

K	V	R	H	V	R	U	R	U	V	N
V	E	V	E	V	K	T	V	K	T	V
E	N	V	K	V	T	R	T	V	T	V
T	E	O	N	K	E	V	E	V	E	V
V	I	N	V	N	E	V	I	N	V	N
G	V	K	V	N	I	V	Z	E	V	E
V	T	O	S	N	U	T	I	V	E	V
K	V	E	T	B	S	V	H	V	E	V
V	A	R	O	B	I	A	V	E	V	E
K	V	A	L	E	K	U	A	V	E	V

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Nork antolatu du Fadurako zelaian apirilaren 2an eta 3an egingo den futbol txapelketa?

> Aurrekoaren erantzuna: *Despertar los sentidos*

> Irabazlea: **Ane Arriaga***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Zer dira albumean agertzen diren eraikinak?

- **Jauregiak**
- **Kioskoak**
- **Txirristak**

> Aurrekoaren erantzuna: *Zapataria*

> Irabazlea: **Ibai Fernandez Iturralde***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

SARIA **Argia**

astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



Aurtengo Nobedadeak:
Zoo Zorua eta Armix Kart

Demoak:
www.elhuyar.org/armixkart
www.elhuyar.org/zoozorua

Joko hau opari gura baduzu, Interneten erosi; %5eko deskontua www.elhuyar.org/edizioak helbidean



Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



*PATXIN * L. DE LETONAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

GETXOZTAR BATEN MEZA BARRIA, 1954

Getxoko Andra Mari elizondoko argazkia duzu hau eta bertan, erdi-erdian, meza barria eman zuen Paul Laraudogoitia pasiotarrak, bihotzaren irudia ezaugarritzat duena. Hiru ume eta banaka batzuk izan ezik, beste guztiak korukideak ziren; zuzendaria Eugenio Foruria abadea eta organista Claudio Garcia maisua. Paul Laraudogoitiak berak ere musika arloan biolin ikasketak eginda zituen eta trebea omen zen biolina jotzen. Eta zergatik agertzen dira hor, lehenengo lerroan bost neska dantzari eta bost bakarrik? Korukideak zirelako. Dantzariak gehiago ziren, neska-mutlen dantza taldea zen. Oraindino ez zegoen Itxas-Argia dantza taldea (1964an sortua). Urtebete gutxienez Segundo Olaeta (Bilboko Olaeta Balleta) gernikar famatua izan zuten irakasle. Hau ohorea hau! ○

- 1. lerroa:** German Hormaza, Andoni Ibarra, Julian Villelabeitia, Patxin L. de letona, Eulogio Bilbao, Urtasun, Iñaki Mardaras.
 - 2. lerroa:** Juan Madariaga, Mariano de Miguel, Josetxu Alvarez, Lejarza, Juan Olaskoaga, Pedro M^a Arrieta, Jesus Bilbao, Jon Bilbao, Oton Aldama, Jon Hermosilla, Juan Mari Mezo, Madariaga, Alboniga, Esteban Onandia.
 - 3. lerroa:** Mikel Otaola, Antonio Landaida, Andres, Ramon Gerediaga, Jose M^a Zalbidea, Claudio Garcia (maisua), Eugenio Foruria (abadea), Paul Laraudogoitia (pasiotarra), Jose Luis Hermosilla, Jesus Lemoniz, ??, Pilar Bravo, Isabel Bravo.
 - 4. lerroa:** Teodoro Hernandez, Javier Bilbao, Imanol Kortabitarte, Miren Emaldi, Miren Sangroniz, Puri Foruria, Begoña Agirre, Josebe Zubiaga, Miren Gorroño, Mari Madariaga, Pilar Arrebi, atzerritar bat Emaldiren etxean, Miren Emaldiren ama, Victoria Garaizabal, Vicenta Zuazo, ??.
- Belauniko:** Feli Villelabeitia, Terese Zabala, Fani Capetillo, Miren Estibarlanda, M^a Carmen Ahedo, hiru ume.
Dantzariak: Libe Basarte, Jaione Zuazo, Espe Agirre, Pilar L. de Letona, Sorne Azkorra.

KRISTINA ARANZABE > abeslaria

“Abestea nuen ametsik handiena, eta dagoeneko, lortu dut”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **Jose Lopez**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Ero samarra eta irekia.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Crepusculo filman, horrelako filmak gustuko ditudalako.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Enpresa garrantzitsu bateko nagusi edo.

Txikitan zer izan gura zenuen?

Ile-apaintzaile, suposatzen dut neska guztiok izan nahi genuela.

Badakazu ohitura txarren bat?

Asko, adibidez, atzazkalak jaten ditut.

Beraz, aitor dezakezun bizio bat?

Erretzea.

Eguna ala gaua?

Gaua. Goizean lo egitea gustuko dut, eta gauean kalera irtetea.

Zerk ematen dizu beldurra?

Katuek, betidanik, ez dakit zergatik, agian beren begiengatik.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Orain hiru urte Danimarkara dantza taldeagaz egindakoa.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke?

Tximua agian, politak dira.

Zein da zure ametsetako bat?

Abestea nuen ametsik handiena, eta dagoeneko, lortu dut.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Ordenagailurik gabe, asko erabiltzen dut eta.

Parrandarik politenak non?

Villabonan, eta BBK Liven jo genuenean ere, oso ona bota genuen.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Zumaia eta Getaria aldea, hondartzengatik eta herri politak direlako. ○

LABURREAN— Ikusentzule gazteak bereganatu ditu Villabonako Lain musika taldeak. Duela ia urte pare bat aurkeztu zuen taldeak bere burua, Lor taldearen *Zure doinua* kantuaren bertsioagaz. Interneten izugarrizko arrakasta lortu dute, sareko euskal kantarik zabalduena eta hedatuena izan dela esan daiteke. Algortan ikusi ahal izan genituen otsailean, inauterietan. Talde gaztea da, lagunartean sortua, eta Leire Berasaluzek eta Kristina Aranzabek jarritzen diote ahots samurra taldeari. Aranzabegaz (Villabona, 1991) solasean ibili gara oraingoan. Musika eta ikasketak uztartzen ditu berak, Telekomunikazio Ingeniaritza ikasten baitabil Bilboko Ingeniaritza Eskolan.

ONDARE UDABARRIA

HIZKUNTZA ONDARE JARDUNALDIAK

2010 / 03 / 25

19:30ETAN FADURAKO KIROLDEGIAN,
ARETO NAGUSIAN

GETXOKO IZENAK MIKEL GORROTXATEGIEN LIBURURAREN AURKEZPENA

Nondik dator gure kalearen izena? zer esan nahi du? GETXOKO IZENAK liburuarekin toponimiaz harantzago joan nahi izan da eta leku izenen azpian dagoen jatorria, esanahia eta historia aurkezten dira. Euskaraz eta gaztelaraz idatzitako liburu hau, argazki berriz eta inoiz argitaratu gabez ondo jantzita dator eta Getxo hobeto ezagutzen lagunduko dizun hainbat kontu ikasteko aukera izango duzu.



EGIN KLIK

berria!

uk

aldizkariari



www.ukaldizkaria.biz

- Azken zenbakia
- Argazkiak
- Artxiboa
- UK ekoizpenak
- UKagenda